



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko abuztuaren 13an

61 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Osasun garraio publikoaren lehiaketa esleitzeko prozedurari eta ituna egiteko erari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Sakanako autobideko desjabetzapenei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (16. or.).
- “Espedienteen kudeaketa tributu arloko txosten eta ebazpen Organoan” gaiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (22. or.).

---

**G saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Osasun garraio publikoaren lehiaketa esleitzeko prozedurari eta ituna egiteko erari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako osasun garraio publikoaren lehiaketa esleitzeko prozedurari eta ituna egiteko erari buruzko fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Osasun garraio publikoaren lehiaketa esleitzeko prozedurari eta ituna egiteko erari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Aurrekarien eta esleipen prozeduraren deskribapen laburra (2. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (4. or.).
- IV. Ondorioak (5. or.).
1. **eranskina.** Prezioen eboluzioaren koadroak (9. or.).
2. **eranskina.** Gertakari aipagarrienen zerrenda, gertatzen joan diren ahala (11. or.).

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aurkezturiko alegazioak (13. or.).

Kontuen ganbararen erantzuna O-NOZ-ek aurkeztutako alegazioei (14. or.).

#### **I. SARRERA.**

Nafarroako Demokraten Elkargune Parlamentari Taldeak eskaturik, Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, 1997ko urriaren 28an, Kontuen Ganbarari fiskalizazio txostena eskatzeko erabakia hartu zuen, hain zuzen ere, ondokoa-ri buruz: "Osasun garraio publikoari buruzko lehiaketaren esleipena egiteko prozedura eta

baita, 1997ko ekainean, Dragados y Construcciones, SA eta Urbaser, SA enpresen aldi baterako batasunarekin formalizaturiko ituna egiteko erabilitako prozedura ere."

Eskaera hori dela eta, Kontuen Ganbarak lan hau 1997ko jarduketa planaren barrenean sartu du.

Txosten hau egiterakoan, jakin badakigu aurreko esleipenei administrazioarekiko auzibide-errekurtsua jarri zitzaiela, Kontu Ganbara honek azpimarratu egin nahi du eginiko lana diru publikoen fiskalizazio eta kontrol ekonomiko eta finantzarioaren ikuspegitik egin dela, Kontuen Ganbarari dagozkion eginbeharrei jarraikiz. Epaille eta auzitegiei dagokie aipatutako prozedurak legezkoak diren ala ez erabakitzea eta aztertutako administrazio jarduketak juridikoki baliozkoak diren ala ez erabakitzea.

#### **II. AURREKARIEN ETA ESLEIPEN PROZEDURAREN DESKRIKAPEN LABURRA.**

Ondoren, eta Parlamentutik luzatutako eskaera kokatzeko, fiskalizatu dugun prozeduran eragina izan duten egitateak laburki azalduko ditugu. Egitate horiek zabalago azaldu ditugu txosten honen eranskinetan.

Osasun garraioa Nafarroan, 1991tik, Nafarroako enpresa pribatu batzuek egin izan dute, eta zegozkien aukeratze-prozesuen ondoren Foru Komunitateko ondorengo eskualdeetan zeuden banatuak:

- . Iruñea
- . Tuter (eta beste hamabi herri)
- . Tuter (eta beste bederatzi herri)
- . Tafalla
- . Lizarra
- . Azagra
- . Zangoza/Erronkari/Zaraitzu

. Baztan/Bidasoa

. Altsasu

- Aipatutako zerbitzua emateko kontratuak, 1995ean, 497 milioi egin zuten guztira, eta urte horretarako abenduaren 31ra arte zeuden indarrean.

- Aurretik, 1995eko ekainean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak beste esleipen prozesu bat jarri zuen martxan Osasunari buruzko Foru Legeak ezarritako osasun eskualdeen arabera. 1996rako aurreikusitako kostua, guztira, 514 milioi zen (1995 urtearekin konparatuz, % 3 gehiago), Kontsumo Prezioen Indizearekin egunera zitekeen eta kontratua 1999ko abenduaren 31ra artekoa zen.

Aipatzekoa da, duen garrantziagatik, bai lehiaketa horretan eta baita ondorengoetan ere, aukeratze prozesuak, eta baita beraz kontratuak ere, berariazkoak eta banakakoak zirela eskualde bakoitzerako.

- 1996ko urtarrilean eten egin zen aipatu den aukeraketa prozesu hori "sektorea ordezkatzeko duten enpresari taldeek ezinezkoa dela jakinarazi dutelako baimendutako gehinezko kopuruetara lizitatzea".

- Lehiaketan kopuruak berrikusi eta beharrezko administrazio-izapideak egin arte, zerbitzua, 1996ko abuztua bitartean, ordura arte aritutako enpresekin egin zen, eta horretarako "ezohiko kontratazioak" deiturikoak egin ziren.

- 1996ko otsailean lehiaketa berrien izapideak hasi ziren, eta 1996rako gehieneko kopurua 555 milioi izan zen, hau da aurreko prozesurako baino % 8 gehiago; 1999ko abenduaren 31ra arteko kontratua zen, kontratukideren batek salatu ezean.

- 1996ko abuztuan, guztira 555 milioiko kopurugatik esleitu zen kontratazioa, lizitazio kopurugatik hain zuzen. Abuztuaren bukaera eta iraila hasiera bitartean ondoko taulan agertzen diren enpresekin sinatu ziren kontratu berriak. Enpresa horiek momentu horretaraino zerbitzua ematen zuten enpresa berberak ziren, Tuterako eskualdeetan ezik, non ordura arte aritutako enpresetako batek hartu baitzuten.

Izena	Eskualdea
Amb. Iruña, SAL	Iruña
Amb. La Nora, SL	Zangoza
Amb. Juan Jiménez, SL	Tafalla
Amb. Virgen del Puy, SL *	Lizarra
Amb. Nuestra Señora del Olmo, SL *	Azagra
Amb. Baztan-Bidasoa, SL *	Baztan
Amb. Iru-Bide, SL *	Altsasu
Amb. Navarra, SL *	Tutera

\* Geroztik kontratua salatu duten enpresak.

- 1996ko irailaren 27an, Lizarra, Azagra, Baztan, Altsasu eta Tuterako esleipendunek kontratuak sinatu eta egun batzuk beranduxeago, kontratu horiek salatu egin zituzten horretarako ezarritako epean <sup>(1)</sup>. Horren ondorioz, Zangoza, Tafalla eta Iruñerako soilik gelditu zen indarrean lehiaketa amaitu berria, 1996rako 292 milioiko kopurua zuena.

- Aurreko salaketaren ondoria zera izan zen: enpresa salatzaileek beraien eskualdeetan ematen zuten zerbitzua, salbuespenez, luzatu egin zela, eskualde horietarako beste esleipen prozesu bat egin arte. Horretarako hiru kontratazio prozesu egin ziren, eta horietan prozedura negoziatua erabili zen.

- 1997ko martxoan lehiaketa berrietarako gasta onetsi, eta ezarri zen urteko kopurua 368 milioi izan zen (hau da, salatutako kopurua baino ehuneko 40 gehiago; hala ere, base bat gutxiago zuten) eta urgentziatzko izapidatzea izan zuten.

Aukeratze prozesua ireki eta, aurreko enpresez gain, Dragados y Construcciones, SA eta Urbaser SA enpresen aldi baterako batasuna eskualde guztietara aurkeztu zen.

- Eskaintzak aztertze izendatutako Batzorde Teknikoak puntuaziorik altuena aipatutako enpresen aldi baterako batasunari eman zion eskualde guzti-guztietarako.

- 1997ko ekainean salatutako eskualdetako zerbitzua esleitu zitzaion Dragados y Construcciones, SA eta Urbaser SA enpresen aldi baterako batasunari. Kopurua, guztira, 328 milioi izan zen, hau da ehuneko 10,7 baxuagoa. Kontratuak 1997ko uztailaren 25ean sinatu ziren. Gastua, eskualdeka, honelaxe banatu zen (milioi pezetatan):

(1) Epea hilabetez luzatu zen aurretik, Nafarroako Anbulantzi Enpresarioen Elkarteak (ASENA) eskatuta.

Baztan-Bidasoa eskualdea	74
Altsasuko eskualdea	38
Lizarrako eskualdea	58
Azagrako eskualdea	58
Tuterako eskualdea	100

• Azkenik zera aipatu behar da: 1997rako, 630 milioiko kostua izan zuela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak osasun garraioan. Aurreko gastuaz gain, Nafarroako Gobernuak, Lehendakaritza Departamentuak hain zuzen, Osasun Laguntza Sistema-Erabilera Bereziaren onuradunek osasun-garraioa erabiltzearen ondoriozko kostua ordaintzen du, horiek aurreko kontratuen aplikazio eremutik kanpo baitaude. Zerbitzu osagarri honen kostua urtean 19 milioi da gutxi gora-behera.

### Ondoren gertatutakoak

Ekainaren 25ean, zenbait anbulantzi enpresek (Ambulancias Irubide, SL, Ambulancias Baztán-Bidasoa, SL, Ambulancias Ntra. Sra. del Olmo, SL, Ambulancias Navarra, SL eta Ambulancias Virgen del Puy, SL) beren legezko ordezkarien bidez, errekurtsio arrunta jarri zuten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ekainaren 6ko 785/1997 Ebazpenaren aurka, zerbitzuaren esleipena Dragados y Construcciones, SA eta Urbaser SA enpresen aldi baterako batasunari ematen dion ebazpenaren aurka, hain zuzen. Nafarroako Gobernuak, 1997ko irailaren 22ko erabakiaren bidez, ezezkoa eman zion errekurtsio hauetan eskaturiko guztiari, eta osasun zerbitzuaren esleipena berretsi egin zuen. Nafarroako Gobernuaren erabaki horrekin administrazio-bidea amaitu zen, eta enpresa salatzaileek administrazioarekiko auzibide-errekurtsioa jarri zuten, eta ez da epairik eman oraindik auzibide horretan.

Uztailaren 30ean eta abuztuaren 7an, aipatutako enpresek zenbait salaketa egin zituzten, klausula teknikoan betetze ezari buruzkoak, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari kontratuaren suntsiarazpena eskatu zitzaion, Dragados y Construcciones, SA eta Urbaser SA enpresen aldi baterako batasunarekin sinatutakoarena, hain zuzen ere. Azaroaren 5ean emaniko ebazpen baten bidez, ezezkoa eman zitzaion erabat aurreko eskaerari. Salatzaileek, ebazpen horren aurka, errekurtsio arrunta jarri dute Nafarroako Gobernuaren aurrean, eta ez dute oraindik horri buruzko ebazpenik jaso.

### III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.

Parlamentuaren eskaeraren ondorioz, hauxe izan da fiskalizazio txostenaren helburua:

1. HELBURUA. Egiaztatu esleipen prozedura aplikagarria den legediaren arabera egin den.

2. HELBURUA. Aztertu ea kontratua ezarritako estipulazio eta baldintzen arabera egin den.

Aztertu dugun denbora epea, batez ere 1997ko ekaina izan da, orduan egin baitzen esleipena. Hala ere, 1995eko kontratazio espedienteen deskribapena eta azterketa ere egin dugu, nahitaezkoak direla uste baitugu fiskalizatu dugun esleipen prozesua zein baldintzatan egin zen behar bezala ulertzeko.

Bestalde, aipatu beharrekoa da, 1994an, Kontuen Ganbarak txostena egin zuela osasun garraioari buruz, eta han, besteak beste, ordura arteko esleipen prozesua aztertu zen (59. NPAO, 1994ko urriaren 14koa).

Ez dira aztertu lehiaketara aurkezturiko eskaintzak baloratzeko erabili ziren alderdi teknikoak, osasun kontuekin zer ikusia zutenak hain zuzen.

Aurreko helburuak lortzearen, Kontuen Ganbara honek normalean erabiltzen dituen auditoretza prozedura eta programak erabili ditu. Programa eta prozedura horiek Auditoretza Gidan daude eta ondokoen menpe garatu dira (bereziki kontratazio publikoaren legezketasunaren azterketari buruzkoak): Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsi zituen Sektore Publikoaren Auditoretza Printzipio eta Arauen menpe.

Gure lana azterturiko kontratazio espedienteen ezaugarriek zaildu dute, ondokoek, bereziki:

a) Aukeratze prozesuaren luzea (1995eko ekainetik 1997ko abuztura arte).

b) Espediente ugaritasuna.

c) Azterturiko espediente bakoitzeko dokumentazio zabala; gainera, batzuetan, sistematizatu gabea.

d) Zenbait administrazio-egintza administrazio bidean errekurrituta daude, beste batzuk, berriz, administrazioarekiko auzibidean.

Guzti hori baldintzatua zegoen, gainera, garraio zerbitzuaren izaera berarengatik, osasun publikoaren funtzionamendu zuzenerako nahitaezkoa baita.

Txostenak lau atal ditu, eta horietan, helburuak eta lanaren ondoren ateratako ondorioak islatu dira. Atal horiek bi eranskinekin osatu dira. Eranskin horietan zera agertzen da: alde batetik, zerbitzuaren prezioaren gorabeheren jarraipena, eta, bestetik, gertaturiko gauzarik aipagarrien zerranda, gertatzen joan diren ahala.

Zelaiko lana 1997ko abenduan eta 1998ko urtarrilarrean egin zen eta honela zegoen osatua lan taldea: auditoretza teknikari bat, legelari bat eta auditore bat; eta Kontuen Ganbarako informatika eta administrazio zerbitzuen laguntza.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten dutenei eskertu egin nahi diegu lan hau egiteko eskeini ziguten laguntza.

#### IV. ONDORIOAK

Parlamentuaren eskaerari jarraikiz, eta kontutan izanik epaile eta auzitegiei dagokiela aztertutako prozedurak legezkoak diren ala ez erabakitzea, hona hemen eginiko lanaren ondoriorik garrantzizkoenak.

#### PARLAMENTUAREN ESKAERAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK.

##### 1. Esleipen prozedura.

Lizarra, Altsasu, Baztan-Bidasoa eta Tuterako Osasun Garraio Publiko zerbitzuaren lehiaketa bidezko esleipen espedientea 1997ko martxoan hasi zen; kontratuak lau urteko indarra izanzen zuten, eta hortik aurrera, urtero, urte beteko epe luzatu ahalko zen. Diru kopurua, guztira, eta urte baterako 368 milioi zen.

Prozesua aipatutako eskualdeetarako batera egin bazen ere eskualde bakoitzak aukeratze prozesu berezia zuten, zegokion esleipen eta kontratu sinatzearekin.

Lehiaketara bederatzi proposamen aurkeztu ziren, eta horietarik lautuan kontratazio mahaiak agiri osatu gabeak edo akastunak aurkitu zituen. Zuzenketarako epearen ondoren kontratazio mahaiak bi proposamen behin betiko utzi zituen kanpoan, eskatutako enpresa-sailkapena ez aurkezteagatik.

Eskaintzak baloratzeko, batzorde tekniko bat izendatu zen, eta horrek, Administrazio Baldintza Berezien Orriko balorazio irizpideen arabera –prezioa, eskura zituzten baliabideak– zera erabaki zuten: aipatutako bost eskualde horietako osasun garraio publikoa Dragados y Construcciones, SA eta Urbaser SA enpresen aldi baterako batasunari ematea, enpresa horixe baitzen puntuaketa altuena ateratuena hautatze prozesu guztietan. Guztira, esleipena jaso duen enpresak eskaintzako kopurua 328 milioitakoa zen, lizitazio prezioa baino % 11 gutxiago; beste proposamenez lizitazio prezioa oso-osorik eskaini zuten.

Orokorrean, fiskalizatutako prozesua aplikagarria den arautegiaren arabera egin da. Salbues-

pen bakarra da esleipena jaso duen enpresen aldi baterako batasunak, objetiboki, forma akats batzuk dituela, kontratazio mahaiak antzeman ez zituenak eta inongo aipamenik egin gabe onartu zituenak.

Akats horien artean, ondokoak aipatuko ditugu:

- Aahaldunaren sinadura falta enpresen aldi baterako batasuna sortarazi zuen idazkian.

- Batasuna osatzen zuten enpresa baten ahalduntzea ez zen ongi ziurtatu, ordezkariak beste autonomia erkidego baterako baitzen

- Proposamen ekonomikoa osatu gabe zegoen, proposamen horretan, enpresen aldi baterako batasuna osatzen zuten enpresetariko bakar baten ordezkariaren sinadura besterik ez zegoen.

Hala ere, zentzuzkoa da forma-akats horiek konpontzeko modukoak zirela uste izatea, eta ez zekartela, berez, kontratatze oinarrizko baldintzen ez betetze, eta beste lehiakideen eskubiderik ere ez zutela ukitzen. Horrela kontratazio mahaiak esleipena jaso zuten enpresari akats horiek zuzentzeko eskatu behar zion. Are gehiago, enpresen aldi baterako batasunak ziurtatu ahal izan zuten ahalduntzea aukeratze prozesuaren aurretik eman zela, eta kontratua sinatu aurretik, enpresen aldi baterako batasuna ongi eratu zela.

Esleipendunak proposamena epe kanpo aurkeztu ote zuten edo ez zuten argitzeari buruz, kontratazio mahaiak uxatu ahal izan zituen zantzak. Horrekin bat, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Erregistro Buruak, geroztik izan zen errekurso bat zela-eta eginiko txostenean, argi eta garbi esan zuten proposamena epearen barruan aurkeztu zela, eta besteak beste honelaxe zion: “3. Sarrera erregistroaren funtzionatzeko moduagatik (haren sistema informatikoak ezin die zenbakia batera eman aurkeztutako agiriei) ohikoa izaten da horietarik batzuk aurkeztu eta beranduago erregistratzea. Unitatean lan egiten duten langileen lanaldia 15ak eta 15:30ak artean amaitzen denez, lana banatu egiten da lanaldia bukatzerako guztia egian egon dadin, kontutan izan gabe idazkiak zehatz-mehatz zer ordutan sartu diren.

Kontutan izanda, gainera, Nafarroako Gobernuaren arautegiak jendea hartzeko ezartzen duen ordutegia 8:30etik 14:30era dela, astelehenetik ostiralera, ez da lehiaketetarako agiririk onartzen erregistroan 14:30ak baino beranduago.

Bestalde, esan behar da Ambulancias del Puy, SL-k aurkeztutako eskabidea ere, teoriarik, epezkantopu dagoela.

Esleipena jaso zuen enpresen aldi baterako batasunaren ustezko gaitasun faltari dagokionean, batasun horretan aurkezturiko sailkapenak berez ziurtatzen du bere gaitasun tekniko eta finantzarioa lehiaketan parte hartzeko.

**Laburbilduz**, esleipen prozesua, orokorrean, indarrean dagoen legediaren arabera egin zen, nahiz eta gero esleipena jasoko zuen horrek aurkezturiko agiriek bazituzten zenbait forma akatsak. Akats horiek zuzen zitezkeen, ez baitziren kontratatzeko nahitaezko baldintzei zegozkienak eta ez baitzituzten kaltetzen beste lizitatuak. Kontratazio mahaiak ez zituen behar bezala bete legediak aukeratze prozesuan ezartzen dizkion betebeharrak, hain zuzen ere, aurkezturiko agirietan aurkitutako akatsak zuzentzeko epea irekitzea. Geroztik sortutako arazoak (errekurtsoak, alegazioak,...) argi eta garbi azaltzen du betebeharrak haiek ongi betetzearen garrantzia.

## 2. Kontratuen formalizazioa.

Kontratuen formalizazioari dagokionean, ondoko berezitasun aipagarriak antzeman dira:

- Kontratua sinatu zenean, 1997ko uztailaren 25ean, esleipendunak bost eskualdetarako guztira eskainitako 29 ibilgailuetatik 24 besterik ez zituen. Arazo hau konpontzeko, eta aldi baterako, 5 ibilgailu alokatu zituen (hala agertzen da zenbait agiritan); 1997ko irailean, erositakoak ekarri ziren. Hala ere, gorabehera horrek, izatekotan, aztertutako kontratu bakarren baten formalizazioan soilik izanen zuen eragina.

- Ez zen eman langileen zerrendarik, baizik eta idazki bat non aurreko esleipendunen langileen lan kontratuaren subrogatzeko konpromesua betetzeko asmoa agertzen zen, esleipendun haiek informazio nahikoa eman bezain pronto. Geroago ekarritako ziurtagiri gisa zera esan zen: 70 langileetatik 25ek ez zutela subrogaziorik onartu, eta datu hori, zehazki jakiterik ez zen izan kontratua hasteko momentura arte.

Egoera horren aurrean, Administrazioak, lehenik eta behin, idatziz jasota utzi behar zuen eskainitako baliabideak ez zeudela eskura, eta, bigarrenik, aukera egin zezakeen, arauen eta egoeraren arabera, ondokoen artean: epea luzatu, hitzartutakoaren betetze zorrotza exijitu edo, azken aukera gisa, kontratuaren suntsiarazpena esleipenduaren ez betetze larri eta erruduna balego.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hitzartua zegoena betetzea erabaki zuen, ulertu baitzuen (zentzu handiz, gure ustez, azterturiko agirien arabera), alde batetik, antzemandako akatsak ez zirela oso garrantzitsuak eta esleipendunak hitzartutakoa betetzeko asmoa bazuela, eta, beste alde batetik, zerbitzuan eraginik ez zutela eta zerbitzu hori egin zitekeela hasierako baliabideekin (gero, zuzendu ziren). Hala izatekotan, eta baldintza orriarekin bat etorritik gero zegozkion neurri zuzentzaile eta zehatzaileak hartu beharko ziren.

Aurreko neurriak hartzea komenigarria da ez bakarrik indarrean dagoen legediaren betetze zorrotzaren ikuspuntutik, baita ere administrazio prozedura orok behar duen argitasun eta objektotasunaren berme gisa.

**Laburbilduz**, esleipena jaso zuen enpresen aldi baterako batasunak, kontratua formalizatu zenean, ez zituen txostenean eskainitako baliabideak zerbitzua eskualde guztietan antolatu eta emateko. Hala ere, kontratua formalizatu eta betetzen hasi zen, Osasunbideak-Nafarroako Osasun Zerbitzuak iritzi baitzuen antzemandako akatsak ez zutela eragozten zerbitzua behar bezala ematea; ordea, ez dago espreski jasorik akats horiekin inongo jarduketarik egin zenik.

## BESTE ALDE BATZUK

Aurreko ondorioak osatzeko hona hemen garrantzizko jo diren zenbait alderdi, horrela aztertutako esleipen prozesu guztia dagokion testuinguruan kokatzeko.

**a)** Nafarroan, osasun garraioak ondoko ezauzgarriak ditu:

- Eskareri dagokionean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua izan da bezerorik garrantzitsuen eta ia erabat bakarra.

- Eskaintzari dagokionean, enpresa txikiak daude, bakoitza foru komunitateko eremu batean finkatuta, eta 1997ko lehiaketara arte, partehartzaile bakarrak izan dira osasun zerbitzu publikoek egindako lehiaketetan. Beraz, sektorea kasik monopolio egoeran egon da, gutxienez, 1997ko ekaineko esleipenera arte.

Azken finean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aurre egin behar dio, alde batetik, zerbitzu hori eman eta bermatzeko ezinbesteko beharri eta, bestetik, sektorean benetako lehia egoteak sortu duen zailtasunari.

**b)** 1995etik aurrerako azterturiko espedientee-tako dokumentuetatik ondoriozta daitekenez elkarriketak izan dira Administrazioa eta aurreko

enpresa edo horien enpresa elkarten artean, eta hori ulergaitza da hornitzaileak aukeratzeko elkar-lehia askean.

Gainera, guzti hori indartu egin da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren antolaketa egoera bereziarekin, 1995 eta 1996 artean zuzendaritza taldeak izandako aldaketan ondorio.

**c)** Aztertu dugun horretan, Administrazioaren erabakiez gain beste batzuk ere ikusi dira, sektoreko enpresario eta langileek beraiek hartutakoak, beraien bidezko interesen arabera; ondokoei buruz ari gara: kontratuen salaketa, aurkeztutako eskaintzetan eginiko proposamen ekonomikoen zenbatekoa, langile batzuk esleipendun berriarengana ez pasatzea.

**d)** Kanpoko zerbitzuaren kostuak gora egin du nabarmen azken ekitaldian: 1995ean 497 milioi baziren, 1997an 630 milioi izan dira, hau da, % 27 gehiago.

**e)** Aztertutako espedienteetan, lizitazio prezioen zenbatekoa, orokorrean, ez dago behar bezala justifikatua eta eginiko ikerketa teknikoekin ez dator bat.

**f)** Prezioak. I. eranskineko koadroetan 1995eta 1997 artean prestazioaren kostuak izan duen prezioen eboluzioa azaltzen da.

Ikus daitekeenez, 1995 eta 1996 artean, zerbitzuaren kostua (zerbitzua 1995eko abenduan bukatu ziren kontratuen luzamenduen bidez eman zen), batez beste ehuneko 12 gehitu zen; ehuneko 5etik ehuneko 30era arteko aldaketak daude. Gehikuntza handienak, gehienbat, 1996ean sinatutako kontratua salatu zuten enpresetan ematen dira.

1996ko esleipena, gero 5 enpresak salatu zutena, batez beste %12 gehitu zen. Salaketa eskubidea erabili zuten enpresek, batez beste % 16 gehitu zituzten prezioak, hau da, batez beste-koa baino 4 puntu gehiago.

Salaketaren ondoren, eta zerbitzua emateko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, berriz ere, ezohiko kontratazioak egin zituen enpresa salatzailerekin lehiaketa berriak bukatu artean. 1997ko fase horretan, ehuneko 50 inguruko gehikuntza antzeman da prezioetan; 1995ekin konparatzen badugu, gehikuntza ehuneko 73 da gutxi gora-behera. Halaber, aipagarria da kontratua salatu ez zuten enpresak, 1996 urtearekin konparatuz, ehuneko 3,2ko gehikuntza izan zutela.

1997ko lehiaketa berriak, 1996ko kostuaren ehuneko 40 gehiagorekin lizitatu ziren <sup>(2)</sup>, eta enpresa berri bati esleitu zitzaizkion eskualde guztiak, aipatutako erreferentzia hartuta, ehuneko 25 gehiagorekin. Horri buruz, esan behar da enpresa salatzailerekin aurkeztu zituzten proposamen ekonomikoak lizitazio prezioaren berdina zirela, aitzitik, esleipendun berriak, guztira, lizitazio prezioa baino ehuneko 11 merkeago eskaini zuen, eta horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari 40 milioi aurrezte zekarkion.

Azken finean, aurreko datuak erakusten dutena da aztertutako epealdian Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarentzat kostuen gehikuntza Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) baino askoz handiagoa izan da; eta, aztertutako prozesua hasi arte, indize hori izaten zen zerbitzuaren urteroko gehikuntzarako erreferentzia.

**g)** Eskualde antolatzeari eutsi egiten zaio esleipen prozesuaren bukaeran; dirudenez, antolatze hori aukeratze prozesuetan parte hartzen dutenen jarduteko eremuak definitzen du. Gure ustez, egokiago da Osasunari buruzko Foru Legeak ezartzen duen eskualde antolatzeari jarraitzea, huts egin zuen 1995eko lehiaketan egin zen bezala.

**h)** Egindako azterketatik zenbait ondorio atera daitezke, horiei buruz gogoeta egin eta zerbitzu publikoen kudeaketa hobetzeko.

- Aldeetako batek kontratuaren aldebakarreko salaketa egiteko ezarritako lau hilabeteko epea. Esperientziak argi utzi du epe hori ez dela nahikoa beste aukeratze prozesu bat egin eta bukatzeko, eta horrek kontratuen luzamendua eta esleipen prozedura negoziatuak dakartza. Hitz batean, aldi baterako egoerak dira, eta horiek ez dira hoberenak kudeaketa publiko egoki baterako.

- Benetan zerbitzua emateko momentua eta esleipen egunaren artean arazoizko epea ezartzea. Horrela, esleipendunak, bereziki berriak bada, kudeaketarekin zerikusia duten beharrezko erabakiak hartu ahal izanen ditu, eta behar izanez gero baita zerbitzua abiarazi ere. Guzti hori konkurrentzia printzipioarentzat mesedegarri izanen litzateke aukeratze prozesu publikoetan.

- Kontratuen urte beteko indarra, horientzat aurreikusitako luzamendurekin, eta kontratuen lau urteko muga; horiek inbertsio sendoak egitera behartzen ditu esleipendunak.

(2) Baliabide berberekin, ehuneko 50 izanen litzateke, 1. eranskineko 2. koadroan ikus daitekenez.

• Aurreko kontratuen xedeari gehitzea Osasun Laguntza Sistema-Erabilera Berezira atxikitako onuradunak, horrela osasun garraio zerbitzua bateratzeko.

Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan

baita arduraduna, indarreko arauak ezarritako iza-pideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



## I. ERANSKINA. PREZIOEN EBOLUZIOAREN KOADROAK. (pezetatan)

1. koadroa

Izena	Eskualdea	1995	1996		Aldaketa 96/95		Egoera 97-1-1ean
		Aurrekontua	Luzamenduak urtebeterako (1)	Eslei- pena	Urtebeterako luzamenduetan	Eslei- penetan	
Amb. Juan Jimenez, SL	Tafalla	36.902.040	38.968.536	38.900.000	%6	%5	Indarrean
Amb. Iruña de Navarra, S.A.L.	Iruña	202.961.220	214.327.044	214.000.000	%6	%5	Indarrean
Amb. Nuestra Señora del Olmo	Azagra	47.280.744	49.928.460	49.929.000	%6	%6	Salatua
Amb. Baztan-Bidasoa, SL	Baztan-Bidasoa	46.127.556	50.740.296	50.741.000	%10	%10	Salatua
Amb. Virgen del Puy,SL	Lizarra	41.514.792	45.666.276	45.667.000	%10	%10	Salatua
Amb. Navarra, SL(Ambul.Ruiz,SL)	Tutera (eta beste 12 herri)	44.028.744	56.294.064	86.491.000	%25	%25	Salatua
Amb. Virgen del Villar, SL	Tutera (eta beste 9 herri)	25.162.584	30.195.096(2)	-			
Amb. La Nora, SL	Zangoza/Erronkari/Zaraitzu	29.982.912	38.977.776	38.900.000	%30	%30	Indarrean
Amb. Iru-Bide,SL	Altsasu	23.063.772	29.982.900	29.983.000	%30	%30	Salatua
		497.024.364	555.080.448	554.611.000	%11,68	%11,58	

(1) Urtebeterako proiektzioa

(2) Bi eskualdeak batu egin ziren

Osasun garraioa,  
kontratua salatua duten eskualdeetan  
Prezioak. Eboluzioa, 1995-1997 (pezetatan)

Izena	Eskualdea	1995	1996		1997				96/95	97/96			
		Esleipena	Luzamendua	Esleipena	1997 Urtarril-otsail	1997 Martx.-ekai.	Lehiaketa	Dragados- Urbaserri Esleitutakoa	Esleipena	Kontratua urtarrila otsaila	Kontratua martxoa- ekaina	Lehia- keta	Dragados- Urbaserri Esleitutakoa
Amb. Virgen del Puy, SL	Lizarra	41.514.792	45.666.276	45.667.000	70.000.000	66.000.000	66.000.000	58.461.539	%10	%53	%45	%45	%28
Amb. Ntra Señora del Olmo	Azagra	47.280.744	49.928.460	49.929.000	70.000.000	65.000.000	65.000.000	57.914.148	%6	%40	%30	%30	%16
Amb. Baztan-Bidasoa, SL	Baztan-Bidasoa	46.127.556	50.740.296	50.741.000	84.000.000	82.000.000	82.000.000	74.137.727	%10	%66	%62	%62	%46
Amb. Iru-Bide,SL	Altsasu	23.063.772	29.982.900	29.983.000	46.000.000	41.000.000	41.000.000	38.347.797	%30	%53	%37	%37	%28
Amb. Navarra, SL	Tutera (+ 12) (*)	44.028.744	56.294.064	86.491.000	130.000.000	139.000.000	114.000.000	99.567.251	%25	%50	%61	%32	%15
Amb. Virgen del Villar, SL	Tutera (+9) (*)	25.162.584	30.195.096										
		227.178.192	262.807.092	262.811.000	400.000.000	393.000.000	368.000.000(1)	328.428.462	%16	%52	%50	%40	%25

\*) Tuterako bi eskualdeak, 1996an, Ambulancias Navarrari esleitu zitzaizkion.

(1) Base bat gutxiago

## 3. koadroa

## Prezioen gehikuntza, 1992-1997

Enpresa	1992	Aldaketak 1993	Aldaketak 1994	Aldaketak 1995	Aldaketak 1996	Egoera 97-1-1ean	1997ko Luzamendua
Amb. Baztan-Bidasoa, SL	Hasierakoa	%5,4	%4,9	%4,3	%10,0	Salatua	%62,0
Amb. Iru-Bide,SL	Hasierakoa	%5,4	%4,9	%4,3	%30,0	Salatua	%51,0
Amb. Juan Jimenez, SL				Hasierakoa	%5,4	Indarrean	%3,2
Amb. Iruña de Navarra, S.A.L.	Hasierakoa	%5,4	%4,9	%4,3	%5,4	Indarrean	%3,2
Amb. La Nora, SL	Hasierakoa	%5,4	%4,9	%4,3	%30,0	Indarrean	%3,2
Amb. Navarra, SL		Hasierakoa	%4,9	%4,3	%25,0	Salatua	%47,0
Amb. Nuestra Señora del Olmo	Hasierakoa	%5,4	%4,9	%4,3	%5,6	Salatua	%38,45
Amb. Virgen del Puy,SL	Hasierakoa	%5,4	%4,9	%4,3	%10,0	Salatua	%51,0
Amb. Virgen del Villar, SL		Hasierakoa	%4,9	%4,3	-	-	-

## 2. ERANSKINA. GERTAKARI AIPAGARRIEN ZERRENDA, GERTATZEN JOAN DIREN AHALA.

### 1go. Kontratazio espedientea

N.G. Erabakia, 95-9-18: O-NOZi baimena eman dio osasun-garraioaren zerbitzua 1999ko abenduaren 31ra arte kontratatzeko. 1996ko aurrekontua 525 milioi izanen da, eta urtero gehituko da Estatuko KPIren arabera.

1411/1995 Ebazpena, azaroaren 20koa: 514 milioi pezetako gastua onetsi dute Nafarroako osasun-garraioaren zerbitzua kontratatzeko 1996an. Esleipen-prozedurari hasiera ematea ere onetsi dute.

141/1996 Ebazpena, urtarrilaren 31koa: azaroaren 20ko 1411/1995 Ebazpena deuseztu zuen.

### 1996ko ohiz kanpoko kontratazioa

N.G. Erabakia, 22-1-96: 13/1986 Foru Legeko 27.1 artikulua ondoietarako, O-NOZi baimena ematea Nafarroako osasun-garraioaren zerbitzua kontratatzeko, bidean den espedientea bukatzen ez den bitartean. Indarraldia, gehienez ere, 1996ko urtarrilaren 1etik apirilaren 30era artekoa izanen da, eta zenbatekoa, 185 milioi.

162/1996 Ebazpena, otsailaren 1ekoa: Nafarroako osasun-garraioaren zerbitzua ohiz kanpo kontratatzea, 1996ko urtarrilaren 1etik apirilaren 30era, zenbatekoa 185 milioi.

558/1996 Ebazpena, apirilaren 29koa: osasun garraio publikoa emateko zerbitzua luzatzea 1996ko maiatzaren 1etik, 1996ko uztailaren 31ra arte, gehienez ere, 139 milioitan.

1012/1996 Ebazpena, abuztuaren 1ekoa: osasun garraio publikoa emateko zerbitzua luzatzea 1996ko abuztuaren 1etik 31ra arte, gehienez ere, 46 milioitan.

### 2gn. Kontratazio espedientea: 1996

N.G. Erabakia, 96-2-12: O-NOZi baimena ematea Nafarroako osasun-garraioaren zerbitzua kontratatzeko, urteko zenbatespeneko 555 milioitan, gehienez ere.

404/1996 Ebazpena, apirilaren 1ekoa: Nafarroako osasun-garraioaren zerbitzuko gastua baimentzea, 1996rako, 555 milioitan, gehienez ere, eta esleipen-espedientea hasia.

1025/1996 Ebazpena, abuztuaren 5ekoa: Nafarroako osasun-garraio publikoaren kontratazioa 555 milioitan esleitzea, guztira:

Amb. La Nora, SL .....	38.900.000
Amb. Virgen del Puy,SL.....	45.667.000
Amb. Juan Jiménez, SL.....	38.900.000
Amb. Nuestra Señora del Olmo.....	49.929.000
Amb. Baztan-Bidasoa, SL (1) .....	50.741.000
Amb. Iru-Bide,SL.....	29.983.000
Amb. Iruña de Navarra, SAL.....	214.000.000
Amb. Navarra, SL .....	86.491.000

1996ko irailaren 4an: Nafarroako Anbulantzien Elkarrekin (ASENA) alegazio-idazkia bidali zuen eta hauxe eskatu:

- Salatzeko esubidea formulatu ahal izateko ezarri epeak aldatzea.

- Administrazioak bere garaian bideragarritzat onetsi zuen plan ekonomiko eguneratua ezartzea, izan ere, enpresa bakarrari ezarri zaio, eta esleipendun enpresen arteko konparaziozko bidegabeberia da.

- Administrazioak azter dezala osasun garraio publikoaren errealitatea.

- Osasun garraioaren kontratua arautu behar duten administrazio-baldintza bereziak zein teknikoak zehatzagoak izatea.

1208/1996 Ebazpena, irailaren 12koa: Nafarroako 1997ko osasun-garraio publikoaren kontratuak salatzeko azken eguna 1996ko irailaren 30a izanen da.

1996ko irailaren 27an. Hurrengo enpresek 1997rako osasun-garraioaren kontratua salatu zuten: Ambulancias Irubide, SL, Ambulancias Baztan-Bidasoa, SL, Ambulancias Ntra. Sra. del Olmo, SL, Ambulancias Navarra, SL eta Ambulancias Virgen del Puy, horiek izan baitziren esleipendunak.

### 1997ko ohiz kanpoko kontratazioa

305/1996 F.A., abenduaren 31koa: O-NOZi baimena ematea Lizarra, Altsasu, Azagra, Baztan-Bidasoa eta Tuterako osasun-garraioaren zerbitzua kontratatzeko, 1997ko urtarrilaren 1etik kontratu berriak indarrean sartu arte, edo gehienez ere, 1997ko apirilaren 30era arte. Aldi horretarako estimatu den gastua 133 milioi da.

20/1997 Ebazpena, urtarrilaren 16koa: osasun-garraioaren zerbitzua prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea, bi hilabeterako, 1997ko otsailaren 28ra arte, 67 milioitan, hurrengo enpresei:

Amb. Virgen del Puy,SL.....	11.666.667
Amb. Nuestra Señora del Olmo.....	11.666.667
Amb. Baztan-Bidasoa, SL.....	14.000.000
Amb. Iru-Bide, SL.....	7.666.667
Amb. Navarra, SL.....	21.666.667

44/1997 Foru Agindua, martxoaren 14koa: Lizarra, Altsasu, Azagra, Baztan-Bidasoa eta Tuterako osasun-garraioaren zerbitzua prozedura negoziatuaren bidez kontratatze baimena ematea, 1997ko martxotik izapidatzen ari diren lehiaketa publikoaren ondoriozko kontratu berriak indarrean sartu arte, edo gehienez ere, 1997ko ekainaren 30era arte. Guztizko kopurua, 131 milioi.

917/1997 Ebazpena, uztailaren 3koa: Lizarra, Altsasu, Azagra, Baztan-Bidasoa eta Tuterako osasun-garraioaren zerbitzuaren kontratazioaren luzapenerako gastua onestea, 1997ko uztailaren 1etik 1997ko uztailaren 28ra, biak barne, 31 milioitan.

1997ko uztailaren 4an: osasun-garraio premiazkoa eta premiazkoa ez dena ematen aritu diren enpresen idazkia, hauxe jakinarazteko: aipatu zerbitzua betetzea enpresa berriaren esku utziko dutela 1997ko uztailaren bosteko zero orduetatik aitzina.

1997ko uztailaren 4an: O-NOZek Goardiako Epaitegiari jakinarazi zion hori.

1997ko uztailaren 5ean: enpresek zerbitzua ematen jarraitu zuten.

### 3gn. Kontratazio espedientea: 1997

N.G. Erabakia, 17-2-1997: O-NOZi baimena eman zion hurrengo zerbitzuak kontratatze: Nafarroako osasun-garraio publiko premiazkoa eta Nafarroako osasun-garraio publiko programatua. Iraupena: 1997ko abenduaren 31ra arte, gehienez ere 2000ko abenduaren 31ra arte luza daitekeena. Urteko aurrekontua: 368 milioi, luzapena gertatuz gero administrazio-baldintza berezien orriek ezar dezaketen prezio-gehikuntzaren kaltetan gabe.

232/1997 Ebazpena, otsailaren 26koa: premiazko ez den Nafarroako osasun-garraio publiko 1997rako kontratatze gastua onestea. Administrazio- eta teknika-baldintzaen orriak onetsi dira eta esleipen-espedienteari ekin zaio, premiaz izapidaturiko lehiaketa publikoaren bidez. Urteko gehienezko gastua: 193 milioi. Martxoaren 6ko 313/1997 Ebazpenak indar gabe utzi zuen.

233/1997 Ebazpena, otsailaren 26koa: Nafarroako osasun-garraio publiko premiazkoa

1997rako kontratatze gastua onestea. Administrazio- eta teknika-baldintzaen orriak onetsi dira eta esleipen-espedienteari ekin zaio, premiaz izapidaturiko lehiaketa publikoaren bidez. Urteko gehienezko kopurua: 175 milioi. Martxoaren 6ko 314/1997 Ebazpenak indar gabe utzi zuen.

415/1997 Ebazpena, martxoaren 25ekoa: Lizarra, Altsasu, Azagra, Baztan-Bidasoa eta Tuterako osasun-garraioaren zerbitzua (premiatzkoa eta premiazkoa ez dena) 1997rako kontratatze gastua onestea. Administrazio- eta teknika-baldintzaen orriak onetsi dira eta esleipen-espedienteari ekin zaio, premiaz izapidaturiko lehiaketa publikoaren bidez. Urteko gehienezko kopurua: 368 milioi.

754/1997 Ebazpena, ekainaren 2koa: Lizarra, Altsasu, Azagra, Baztan-Bidasoa eta Tuterako osasun-garraioaren zerbitzua (premiatzkoa eta premiazkoa ez dena) 1997rako esleitzeko Batzorde Teknikoa sortzea.

785/1997 Ebazpena, ekainaren 6koa: Lizarra, Altsasu, Azagra, Baztan-Bidasoa eta Tuterako osasun-garraioaren zerbitzua (premiatzkoa eta premiazkoa ez dena) 1997rako esleitzea, 328 milioitan, hurrengo enpresari: Dragados y Construcciones, SAK eta Urbaser, SAK osaturiko aldi baterako enpresa-batasunari. Hona gastua nola banatzen den, eskualdeka:

Baztan-Bidasoako eskualdea .....	74.137.727
Altsasuko eskualdea.....	38.347.797
Lizarralde.....	58.461.539
Azagrako eskualdea .....	57.914.148
Tuterako eskualdea .....	99.567.251

1997ko uztailaren 25ean: Ambulancias Irubide, SL, Ambulancias Baztan-Bidasoa, SL, Ambulancias Ntra. Sra. del Olmo, SL, Ambulancias Navarra, SL eta Ambulancias Virgen del Puy, SL enpresen legezko ordezkariak errekurtso arrunta jarri dute ekainaren 6ko 785/1997 Ebazpenaren aurka.

1997ko uztailaren 25ean: O-NOZek Dragados y Construcciones, SAK eta Urbaser, SAK osaturiko aldi baterako enpresa-batasunak kontratua izenpetu.

1997ko uztailaren 29an: esleipendun berriak zerbitzua ematen hasteko eguna.

1997ko uztailaren 30ean: Ambulancias Baztan-Bidasoa, SL, Ambulancias Ntra. Sra. del Olmo, SL, Ambulancias Navarra, SL, Ambulancias Irubide, SL eta Ambulancias Virgen del Puy, SL enpresen legezko ordezkariak salaketa jarri dute, UTE Urbaser-Dragados y Construcciones, SARI 1997ko ekainaren 6ko Ebazpenaz esleitu zitzaion pre-

miazko eta ez-premiazko osasun-garraioaren zerbitzuarekin zerikusia duten hainbat gorabeherarengatik. Kontratua arautzen duten administrazio-baldintzen orrietako hogeigarren klausulan, kontratuaren suntsiarazpenari buruzkoan, agertzen dira horiek guztiak.

1997ko abuztuaren 7an: Ambulancias Navarra, SLren ordezkariak hainbat arau-hauste salatu du, Tuterako osasun-garraio zerbitzuaren garapenean gertatu omen direnak.

N.G. Erabakia, 1997-9-22koa: aurkeztu zaizkion errekursoak erabat ezestea eta beraz, ONOZeko zuzendari-kudeatzaileak ekainaren 6an eman zuen 785/1997 Ebazpena erabat berrestea. Horren bidez, UTE Dragados y Construcciones, SA-Urbaser, SA enpresari esleitu zitzaion Lizarra, Altsasu, Azagra, Baztan-Bidasoa eta Tuterako osasun-garraioaren (premiazkoa eta premiazkoa ez dena) zerbitzuaren kontratazioa.

1421/1997 Ebazpena, azaroaren 5ekoa: Ambulancias Irubide, SL, Ambulancias Baztan-Bidasoa, SL, Ambulancias Nuestra Señora del Olmo, SL, Ambulancias Navarra, SL eta Ambulancias Virgen del Puy, SL enpresen legezko ordezkariak 1997ko abuztuaren 5ean eta 14an aurkeztu idazkien bitartez eskatu zuten Lizarra, Altsasu, Azagra, Baztan-Bidasoa eta Tuterako osasun-garraioaren (premiazkoa eta premiazkoa ez dena) zerbitzua emateko kontratua suntsiaraztea. Eskaria erabat ezestea.

1997ko abenduaren 9an: Ambulancias Irubide, SL, Ambulancias Baztan-Bidasoa, SL, Ambulancias Nuestra Señora del Olmo, SL, Ambulancias Navarra, SL eta Ambulancias Virgen del Puy, SL enpresen legezko ordezkariak errekurso arrunta aurkeztu diote azaroaren 5eko 1421/1997 Ebazpenari.

## **OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

### **II. atala:**

- Hauxe dio: "osasun garraioa Nafarroan, 1991tik, Nafarroako enpresa pribatu batzuek egin izan dute".

Guk uste dugu zuzenago dela esatea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 1991n bereganatu zituela osasun-transferentziak, eta eskuratutako egoera antolatzeari ekin ziola, lehiaketa deituz eta esleipena eginez. Edonola ere, osasun garraioa 1991.a baino askoz lehenagotik egin izan da, aipatu urtearen "aurrekoak" eta "ostekoak" bereiz daitezkeen arren, antolamenduaren ikuspegitik.

- Gastu-onespena martxoan egiteko arrazoia, izapidearen premiazko izaera eta urteko zenbatekoa horrenbeste igo izana ulertzeko, ohar hauek hartu behar dira kontuan:

a) Enpresek bi hilabetez bakarrik luzatu nahi dute zerbitzua, hasiera baten, 1997ko otsailaren 28ra arte. Epe hori laburregia da lehiaketa publikoren bitartez egindako kontratazio-prozedura bukatzeko, baina ASENSA enpresak ez du inongo bermerik eman zerbitzuarekin jarraitzeko, aipatu dugun epetik aitzina.

b) Otsailean finkatu ziren ekaina bukatu bitarteko luzapenerako baldintzak. Berehala ekin zitzaion kontratatzeke administrazio-prozedurari, premiazko izaerarekin, une larria zelako eta zerbitzua ematea jasaten ari zen aldi baterakotasunarengatik.

c) Bata bestearen ondorengo luzapenak negoziatzeko bide honetan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak baldintza okerrak izan ditu funtsezko zerbitzuaren jarraitasuna bermatu behar izan duelako, bat eginda, eta gure ustez abusatu, ari ziren enpresa-multzo baten aurrean. Izan ere, behin eta berriz egin dute zerbitzua gelditzeke mehatxua, geroko lehiaketak erakutsi dituen gehiegizko prezioak erabili dituzte eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ordaindu behar izan ditu, zerbitzua etenda eta aurrera egiteko aukerarik gabe geratuko ez bazen.

- Argitu beharra dago Nafarroako Anbulantzi Enpresarien Elkarte (ASENA) deritzanak ez dituela ambulanzien enpresa guztiak hartzen ez ordezkatzeko, horietako batzuk baizik (gehikuntza handiagoko lortzeko indarra egin eta kontratua salatu zuten haiek, hain zuzen).

### **2gn. ondorioa. Kontratua formalizatzea.**

- Beharrezkotzat jotzen dugu argitzea lehiaketaren xedea zerbitzuak kontratatzea zela, eta ez baliabideak. Hain zuzen ere, ASENSA biltzen zituen enpresak baliabide mugatuak eskaini zituen, eta UTE Urbaser Dragadosek, lehiaketaren esleipendunak, zerbitzuak beharrezko baliabideekin betetzea eskaini zuen, baliabideak zenbatestek beraien kontratu-konpromisoaren muga zehatza izan gabe.

- Kontratua suntsiaraztearena albo batera utzita, legearen aldetik, zalantzan ere jar daiteke ea Administrazioak posible zuen enpresa esleipendunari zehapenik jartzea bere zereginak ez betetzeagatik (aldi baterakoa eta hein batekoa, beti ere), kontratuan jarritako baliabideak zirela-eta.

Izan ere, aipatu den egoeraren aurrean neurri zuzentzaileak hartzeko ahalmena ezin da eztabai-

datu (administrazio publikoen kontratazioari buruzko legediak Administrazioari aitortzen dizkion ahalmenak betez), baina zehatu edo zigortzeko neurriak ezartzeko, aldiz, badirudi beharrezko dela horri buruzko aurreikuspen zehatza izatea kontratuan bertan edota haren araubide juridikoa eraentzen duten baldintza-orrietan, tipizitate-printzipioaren adierazpena-edo izanen litzatekeena, doktrinarik onetsienaren arabera.

Oraingo honetan, ordea, zehapen ekonomikoa baino ez da aurreikusten, aipatu den hogeigarren klausula horretan esaten diren portaera zehatzak zigortzeko. Beraz zalantza handia dago adierazitako egoerari (eskainitako baliabide guztiak ez izatea) zehapen ekonomikoa jar ote dakioken, ez delako aipatuetako ezein jarreretan sartzen.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ere hala ulertu du, eskatu zioten aurrekontu-suntsiarazpenari buruz bakarrik mintzatu zelako 1.421/1997 Ebazpenean, bestelako zehapenezartzerik ofizios sustatu gabe, enpresaren jokiera, argi dago, ez delako administrazio-baldintzen orrietako hogeigarren klausulak aipatzen dituenen artean sartzen.

#### **Beste alde batzuk**

- b) lerroaldea: Administrazioaren eta aurreko enpresen arteko elkarrizketak izan direlako ez dugu oso zuzentzat jotzen. Enpresa horiek prozesuan zehar izan duten jarduketaren denon arteko adostasunaren edo bat egitearen ondorio izan da, eta horren bidez beraiek ordezkatzeko zituen elkartea zen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren mintzakide bakarra. Horrek indartu egiten du alorrean ia-ia monopolioko egoera zegoela zioen ondorioa.

- e) lerroaldea: "lizitazio prezio eta kostuen zenbatekoa, orokorrean, ez dago behar bezala justifikatua eta ez dator bat eginiko ikerketa teknikoekin" esatea ez dator errealitatearekin bat, eta bakarrik justifikatzen da aipatu azterlanak (badira, izan) ez daudelako kontratazio- eta esleipen-espeditanteetan, aipatu espeditantearen eduki bereki eta egoki ez direlako, besteak beste.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Prestazio eta Itunen Zerbitzuak alorreko kostuen azterketa burutu zuen 1996ko azken aldera, enpresen asmo ekonomikoen oinarria aztertzeko, asmo horietan oinarritu baitziren kontratua salatzeko. Azterlan horiei buruzko dokumentazioa Zerbitzuaren bulegoetan dago, lehen aipatu dugun arrazoiarengatik organo fiskalizatzaileak eskuratu ez badu ere.

Berrikitan egin den hiru anbulantzia medikalizatuen esleipenak (Iruña, Lizarra eta Tutera) indartu egiten du, bestalde, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eginiko analisi eta azterketen zuzentasuna eta argi erakusten du, halaber, aurretik zegoen monopolio-egoera. Ezin da bestelako ondorioz atera elkarteko enpresek aurkezturiko eskaintzetatik, lehen aldiz aurkeztu dutelako lizitazio-prezioa baino dezente apalago bat eta zerbitzua ematea bereganatu permanentzia-base bakoitzeko hamazazpi milioi pezeta ingurutan.

- g) lerroaldea: Ez dugu uste zuzena denik hauxe esatea "dirudienez, antolatze hori aukeratzeko prozesuetan parte hartzen dutenen jarduteko eremuak definitzen du". Eskualdetan banatzeak zorrotz errespetatzen du Osasunari buruzko Foru Legeak eta ondoko arauak ezarritako eskualdetzea. 1996ko iraileko kontratuaren baldintza teknikoaren orrietako geografi eremuan ez dira herriak agertzen, oinarritzko osasun-barrutiak baizik, izenbaki eta guzti.

- h) lerroaldea: Lehendakaritza Departamentuak proposatua zeukan Osasun Sistema-Erabilera Berezira atxikitako onuradunak sartzeko, baita bere garaian baztertua ere, alorrean izan diren aldaketan aurrean berriro aztertzearen kaltetan gabe.

Era berean, espeditantea fiskalizatzen erakutsi duten profesionaltasuna goraipatu nahi dugu, esleipen-prozedura "orokorrean, indarreko legediarekin bat" burutu zela onartu dutenean, batez ere, eta forman aurkitu diren akatsek ere "ez zekartela, berez, kontratatzeako oinarritzko baldintzen ez betetzerik, eta beste lehiakideen eskubiderik ere ez zutela ukitzen" onartu dutelako.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Prestazio eta Itunen Zerbitzua: M<sup>a</sup> Soledad Aranguren Balerdi

Oniritzia

Laguntza Espezializatuko Zuzendaria: Enrique Gómez Fernández

#### **KONTUEN GANBARAREN ERANTZUNA O-NOZ-EK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI**

Hona Ganbara honek zer dioen O-NOZek aurkeztu dituen alegazioei buruz:

##### **2gn. ondorioa. Kontratuaren formalizazioa**

Kontratuaren formalizazioan aplikatu beharreko neurri zuzentzaile-zehatzaileak direla-eta, uste dugu baldintza-orrietako 19. klausulak baduela aurreikuspen bat, ez betetzearentzako zehapen

ekonomikoak har ditzakeena, ibilgailuez eta haien eskifaiez ari garenean.

#### **Beste alde batzuk**

b) Ierroaldea. O-NOZen alegazio-idazkiak berretsi egiten du Administrazioaren eta enpresen arteko elkarrizketak edo negoziaketak izan direla, harremana indibiduala edo dagokion enpresario-elkartearen bidez izan.

e) Ierroaldea. Hauxe diogu alegazioari buruz:

1go. Espedientean zeuden azterketak eta txostenak aztertu ditugu, eta baita hainbat ardura-dunek eman dizkigutenak ere; hain zuzen ere, 1996ko abenduaren 20ko txostenaz ari gara -izenpetu gabe, berau-, "Osasun garraioa: itundutako zenbatekoa eta esplotazio kostuak elkarri egokitzea" izenekoaz; eta 1996ko abenduaren 23ko idazki edo azterketaz -izenpetu gabe ere-, "ASENAko bi ordezkariarekin egindako bilera permanentzia-baseko anbulantzia bakoitzeko kostuen gaia zentratzeko" gaiari buruzkoaz.

2gn. Lizitazio-prezioen zenbatespena dagokion espedientetan behar bezala justifikatu gabe dagoelakoari eusten diogu.

3gn. Harrigarria da administrazio publiko batek esatea lizitazio-prezio baten zenbatespena oinarritzen edo zuzenesten duten azterlan edo txosten teknikoak ez direla administrazio-espedientearen "eduki bereki eta egoki". Horri buruz esan behar administrazio-espediente orok zintzo jaso behar dituela burututako jarduketak, dokumentuzko euskarri eta guzti. Horrek esan nahi du espedienteak beharrezko dokumentazio guztia behar duela hauxe aztertu ahal izateko: hartutako erabakia egokia oten den, motibatua eta legezkotasun eta gastu-arrazionaltasun printzipioekin uztartua.

g) Ierroaldea. Osasunari buruzko Foru Legeak ezarri du oinarrizko osasun-eskualdeak osanbarrutietan bilduko direla.

Azken horietaz ari gara gure txostenean, eta ez oinarrizko osasun-eskualdeez, O-NOZen 1996ko oroit-idazkian 51 baitira.

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## **Sakanako autobideko desjabetzapenei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko martxoaren 24an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Sakanako autobideko desjabetzapenei buruzko fiskalizazio txostena argitaratu dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Sakanako autobideko desjabetzapenei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (16. or.).
- II. Helburuak eta norainokoa (16. or.).
- III. Ondorioak eta gomendioak (16. or.).

#### **Eranskinak:**

- I. Autobiako tarteen deskribapena (20. or.).
- II. Sakanako Autobiako desjabetzapenaren kronologia (20. or.).

#### **I. SARRERA.**

1997ko maiatzaren 14an hartutako erabakiaren bidez onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Irurtzun-Altsasu autobia - Sakanako autobioi obrei buruzko Ikerketa Batzordeak emandako irizpenaren gaineko ondorioak. 1997ko maiatzaren 21eko 36 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aipatu erabakia.

Esan diren ondorioen artean dago bederatzigarrena. Halaxe dio, hitzez hitz:

Desjabetzapenak direla-eta, bidezko da Kontuen Ganbarak fiskalizazio lana eta txosten berezia burutzea, balio justua erabakitzeko erabili diren irizpideak zehazteko, eta egokiak izan ote diren erabakitzeko.

Sakanako autobioiak, Kontuen Ganbara honek 1996ko azaroan argitaratu zuen fiskalizazio-txostenean genioen bezala, 25,9 kilometro luze da eta bi fase ditu, bina tarterekin. Arabako mugaraino doa, bestelako jarduketara osagarriekin batera.

I. eranskinean sartu dugu autobioaren fase eta tarteen zehaztasun gehiago, eta II. eranskinean, desjabetzapenen kronologia.

#### **II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA.**

Sakanako autobioi obrei buruzko Ikerketa Batzordearen bederatzigarren ondorioarekin bat, hurrengo helburuak hartu ditu gure lanak:

- Balio justua finkatzeko erabili diren irizpideak zehaztu eta aztertzea eta irizpide horien arrazoizkotasunari eta zuzentasunari buruzko iritzia ematea.

Batzordearen eskariak jaso duen aurreko helburuaz gain, Ganbara honek egokitzen jo du hurrengo helburuak ere sartzeko:

- Sakanako autobioi izan diren desjabetzapenen kostua zehaztea eta behar bezala erasota uztea 1997ko abenduaren 31n bukatzen zen ekitaldiaren itxieran.

- Desjabetzapenetan erabili diren prozedurak aztertzea, indarreko legediarekin bat datozen ikusteko.

Lanerako metodologiatzat aplikatu dira Ganbara honek eskuarki erabiltzen dituen programak. Bere auditoria programatan daude jasota eta Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoaren Koordinazio Batzordeak onetsi dituen alor publikoaren arau eta printzipioen barruan garatu dira.

Auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak garatu du lana 1998ko urtarrilean zehar eta Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan etengabeko lan-kidetza izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Herrilan Departamentuko langileei, eta Desjabetzapen Atalekoei batez ere, lan hau egiteko eskaini diguten lankidetzarengatik.

#### **III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

##### **III.1. SAKANAKO AUTOBIOI OBREI BURUZKO DESJABETZAPENEN GUTZITZKO KOSTUA, 1997KO ABENDUAREN 31N**

Hona autobioi obrei buruzko desjabetzapenaren ondorioz pilatu den gastua 1997ko abenduaren 31n:



	(milaka pezetatan)
	1997-12-31n pilatutako gastua
Autobia	
A fasea (I. eta II. tarteak)	581.097
B fasea (I. eta II. tarteak)	759.286
Sakanako autobiaiko desjabetzapenak, guztira	1.340.383

Herrilan Departamentuak behar bezala kontabilizatu ditu aipatu gastuak ekitaldi ezberdinetan.

### III.2. DESJABETZAPEN PROZEDURAREN LEGEZKOTASUNAREN AZTERKETA.

Azpiegituretako Inbertsioen Plan Orokorra onetsi zuen otsailaren 28ko 1/89 Foru Legetik aitzina egindako jarduketak aztertu ditugu, Sakanako autobia hor sartzen zelako.

Gure azterketatik atera dugun ondorioa da Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen

(aurrerantzean NDL) eta haren erregelamenduzko garapenaren eskakizunak bete egin direla, onura publikoa eta gizarte-interesa aurretik deklaratu beharri buruzkoan, eta Lege-erreserba errespetatu egin dela, aipatu Legearen 10. artikularen ondorioz.

Ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendak egin ondoren, argitaratu egin ziren eta jendaurrean jarri. Okupatzeko beharra zegoela ere erabaki zen, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Erregelamenduko 16. artikularen eta hurrengoaren arabera.

### III.3. BALIO JUSTUA FINKATZEKO IRIZPIDEAK

Herrilan Departamentuak, Desjabetzapen Atalak hain zuzen, desjabetzapenak direla-eta ordaindu behar ziren prezioak finkatzeko erabili dituen irizpideak aztertzeke, ordainketak agintzen dituzten foru aginduak hartu ditugu abiapuntutzat, eta honela sailkatu ditugu:

Adostasun aktak	A fasea: I. eta II. tarteak			B fasea: I. eta II. tarteak			Total			Guztizk. gain. ehunekoa
	M <sup>2</sup>	Pezetak, guztira	M <sup>2</sup> ko prezio batez b.	M <sup>2</sup>	Pezetak, guztira	M <sup>2</sup> ko prezio batez b.	M <sup>2</sup>	Pezetak, guztira	M <sup>2</sup> ko prezio batez b.	
Landa lurra	728.655	319.821.467	* 439	1.207.206	486.366.722	403	1.935.861	806.188.189	* 416	
Hiri lurra	10.722	25.689.052	2.396	38.739	77.689.258	2.005	49.461	103.378.310	2.090	
Bestelakoak		56.003.432			163.370.597			219.374.029		
Eraikinak birjartzea		146.090.611						146.090.611		
Adosturikoa, guztira		54.634.662			727.436.577			1.275.041.139		98,7
<b>Desjab. epaimahai eta beste</b>										
Epaimahaia		1.033.612			10.667.231			11.700.843		
Bestelakoak					4.658.790			4.658.790		
Epaimahai eta best., guztira		1.033.612			15.326.021			16.359.633		1,3
<b>Aztertu diren akta guztiak</b>		<b>548.638.274</b>			<b>742.762.598</b>			<b>1.291.400.872</b>		<b>100</b>

\* Prezioaren gehi finka edota ustiategiaren kalte eta galeren batez bestekoa.

Ikus dezakegunez, ordainketak honela sailkatu dira: landa lurra, hiri lurra, bestelakoak eta eraikinak birjartzea, adostasun-akten arabera, hau da Administrazioa eta partikularrak bat etorri direnean. Prozedura horrek ehuneko 98,7 egiten du Sakanako autobian; desjabetzapen-epaimahaia-

ren balorazioen eta bestelakoaren arabera ordaindutako prezioak, ordea, guztizkoaren 1,3a baino ez dira.

A eta B faseetako kopuruak, beraz, aztertutako akta guztiak, ez datoz bat txostenaren III-1 atalak erakutsi duen desjabetzapenen guztizko gastua-

rekin, 49 milioi gehiago jaso baitira desjabetzapenen kudeaketaren ondoriozko hainbat gastu direla-eta.

Autobiaren desjabetzapenen gastu-sailkapen hori egiteko, adostasun-aktak hartu ditu Ganbarako lan taldeak abiapuntuztat eta tratamendu informatiko egokia erabili du azterketa burutzeko.

Desjabetzapen Atalak ez du desjabetzapenen kudeaketaren jarraipena egiteko programa informatikorik, eta horrek lan errepikakorra egin beharra dakar jakinarazpenetan, zerrendetan, eta abarretan. Datu-basea erabiltzeak asko erraz dezake lana.

*Gure gomendioa da Desjabetzapen Atala beharrezko baliabide informatikoez hornitzea, informazioaren tratamendu egokia burutu dezan, administrazio-izapideak eta desjabetzapenen kudeaketa errazteko.*

Ondoren aztertuko ditugu desjabetzapenen prezioa finkatzeko erabili diren irizpideak, ordaintzen laburpena jasotzen duen laukiaren sailkapenaren arabera.

### III.3.1. Landa finkak

Adostasuneko aktak onesten lehena izan zen 595/91 Foru Aginduaren ordainketa proposatzen duen Desjabetzapen Ataleko buruaren txostenak orokorrean aipatzen ditu balio justua finkatzeko erabiliko diren irizpideak, Zuzendaritza Nagusiak eta Desjabetzapen Atalak buruturiko negoziaketan ondorioz.

**A fasea.** Metro koadroko 160 eta 500 pta. bitarteko prezioa dago, nolakotasunen eta itxaropenen arabera. Landa luraren prezioa ehuneko 20 gehitu da finkaren gainerakoaren kalteak direla-eta, eta ehuneko 25 ustategiaren galerak, iristeko zailtasunak, eta abar direla-eta.

**B fasea.** 668/93 Foru Aginduaren ordainketa proposatzen duen Desjabetzapen Ataleko buruaren txostenak hauxe dio: A faserako erabili den prezio-planteamendu berbera erabili da. Prezioak KPIren arabera ez eguneratzea dela-eta, argudioa da iragan bi urteetan nekazaritza-lurretako prezioak asko jaitsi direla, KPIren portzentaiak baino askoz gehiago. Prezioak beherantz doitzea ere ez zen bidezkotzat jo, multzoko gaitzespena eragin lezakeelako. Granjen inguruko lurretako prezioa baino ez da pixka bat hobetu, horietan ez delako prezio-jaitsierarik gertatu, ez nekazaritza-lurretan bezainbat, bederen.

A eta B faseetako landa lurretako desjabetzapenetan egindako azterketatik abiatu eta hurrengo ondorioa atera dugu:

Dagoeneko iruzkinduta dagoen 595/91 Foru Aginduak ezarri dituen mugen barruan baloratu da landa lurra, kalitatearen, zertarakoaren eta kokapenaren arabera, eta balorazio alde txikiak doitu dira, finka mugakideen arteko alde handiak ekiditearren edo beste arrazoi batzuentzat.

Ordaindutako prezioek oso banaketa uniforme aurreratu dute, goranzko desbideraketek badute aurreko txostena, eta argudio logikoak erabili dira.

### III.3.2. Hiri finkak

595/91 Foru Agindu berberak finkatu du hiri finken prezioa: metro koadroko 1.500-2.200 pta. bitartean ezarri da, nolakotasunen eta itxaropenen arabera.

A eta B faseetako hiri lurretako desjabetzapenetan egindako azterketatik abiatu eta hurrengo ondorioa atera dugu:

Hiri lurak eragin txikia du autobiaren trazaduran, kopuruaren aldetik, eta oso modu uniforme balaratu dute, Foru Aginduak ezarritako mugen barruan. Goranzko edo beheranzko desbideraketei buruz behar diren txostenak egin dira, eta argudio logikoak erabili dira.

### III.3.3. Bestelako kontzeptuak.

Bestelakoetan, desjabetzeko hainbat kontzeptu sartu dira. Hona zehaztasuna:

Kontzeptua	A fasea I eta II tarteak	B fasea III eta IV tarteak	Pezetak, guztira
Euskarri elektrikoak	690.000	224.000	914.000
Hari elektrikoaren kalteordaina	1.106.901		1.106.901
Hari elektrikoaren aire-zortasuna	1.026.592	3.184.506	4.211.098
Telefono hariak	306.444		306.444
Telefono hariaren lurpeko zortasuna	256.479	165.000	421.479
Zuhaitzak	5.080.400	14.165.100	19.245.500
Hormak	470.000		470.000
Itxiturak	6.103.500	3.811.950	9.915.450
Eraikuntzak	11.305.000	83.040.378	94.345.378
Ubideak, ubide-zortasuna	89.088	18.060	107.148
Nekazaritzako kalteordainak	18.401.059		18.401.059
Uztak	896.577		896.577
Drenajeak	3.180.000	335.000	3.515.000
Formaren aldaketa, zatiketak, eta abar	6.303.153	4.853.298	11.156.451
Sailkatu gabeak	788.239	53.573.305	54.361.544
Guztira	56.003.432	163.370.597	219.374.029

Kontzeptuotan egindako lanetik abiatu eta hurrengo ondorioa atera dugu:

Ordaindutako prezioak arrazoizkoak eta uniformeak dira. Goranzko edo beheranzko desbidera-

ketei buruz behar diren txostenak egin dira, eta argudio logikoak erabili.

Eraikuntzen kontzeptuaren barruan, B fasean sartu da 30,2 milioi pezetako kalteordaina desjabetutako hiru etxebizitzagatik, eta metro koadroko 22.000 pta. eta 54.000 pta. bitartean ordaindu da, haien nolakotasunen arabera, Administrazioak eskuarki erabiltzen duen kalteordain-irizpidea, alegia.

### III.3.4. Eraikinak (etxebizitzak) birjartzea

**A fasea:** Uharte Arakilen dauden lau eraikuntza dira fase honetan.

Hurrengo foru aginduetara jo behar da balio justua finkatzeko baliatu diren irizpideak aztertze-ko:

- 51/91 Foru Agindua. Jabeei aurrerakina ordaintzea agindu zuen, lursailak erosteko aurreko gordailuaren kontura.
- 53/91 Foru Agindua. Eraikin berrien arkitektura-proiektuei aurre egiteko kopuruak ordaindu dira, kontura baita ere.
- 672/91 Foru Agindua, behin betiko proiektua ordaintzekoa.
- 1237/91 Foru Agindua, adostasuneko-aktak ordaintzea agintzen duena.

Ikusten denez, aplikatu dena ez da Administrazioak eskuarki erabiltzen duen kalteordain-irizpidea izan, birjarpen irizpidea baizik.

Garai hartan Desjabetzapen Bulegoa zenaren buruak txostena egin zuen 1237/91 Foru Aginduari buruz. Hauxe zioen: Departamentuko Zuzendaritza Nagusiak eman ditu kudeaketa hauetarako jarraibideak, eta kalteordainaren zenbatekoa finkatzea ez da enfokatu ukitutako ondasunaren balioaren ildotik, baizik eta etxebizitzak birjartzeko kostutik, eraikin berriak dakartzan gastu guztiak sartuta (lurrak, proiektuak, lizentziak, obra berriaren deklarazioa, eskriturak, erregistroak, eta abar).

291/92 Foru Aginduz ordaindu ziren gastu osagarriak. Desjabetzapen Bulegoko buruak Foru Agindu horri buruzko txostena eman zuen eta hauxe proposatu:

Gastu guztiak ordainduko zitzaizkielako hitza eman zitzaenez jabeei, hainbat arrazoiengatik etxebizitza berriak eraikitzea atzeratuta zegoenez, eta autobia eraiki behar zuen enpresak etxe zaharrak uzteko premiatzen zituenez, hainbat kalteordain onetsi behar izan da etxebizitza berrietarako azpiegiturak eraikitze-ko, aldi baterako lojamen-

duetarako, altzariak eramateko, biltegiak aldi baterako alokatzeko, eta abarretarako.

Ikus daitekeenez, kostu handiak dira, eta izenpetzen duenak onetsi behar izan ditu, kudeaketa desatseginak, eta batzuetan, oso tirabiratsuak izan eta gero. Beraz, kontuan hartuta ukitutako batzuen aldartea eta obren enpresa esleipendunak aurkez zezakeen erreklamazioa, obrak gertzea zela-eta, onartzea hobetsi da.

Funtsean, eraikin bakoitzaren azalera eta gainerako gorabeherak alde batera, oso ezberdinak baitira, jabe bakoitzak 32 eta 36 milioi pezeta bitartean jaso duenez, atera dugu birjarpenaren irizpide teknikoak ez dela zorrotz aplikatu.

Ordainketa guztiek dute adostasun-akta sorburu. Desjabetzapenaren xede diren ondasun eta eskubideen kalteordainaren kopuruaren gaineko akordio soilaren adierazpen formal baido ez da aipatu akta, norbanakoak eta Administrazioak askatasunez adostutakoarena, alegia.

NDLren arabera, haren 24, 37 eta 43. artikuluen arabera, hain zuzen, hurrengo ondorioak atera ditugu:

- Aldeek modu askean egin dezakete desjabetzeko diren ondasunen balorazioa, adostasuna dagoen bitartean.
- Adostasunik ezean bakarrik hasten dira legeko balioespen-irizpideak eragiten, Legeak ezarritako prozedura abiatu ondoren, dagozkion balioespen-orrietan formalizaturiko tasazio kontrajarriena, alegia.
- Legezko balioespen-irizpideak ezarrita ere, aldeek beste batzuk erabil ditzakete, baldin eta irizpide haiek erabili ondoren ateratzen diren emaitzak bat ez baldin badatoz desjabetutako ondasunen benetako balioarekin.
- Legeak ontzat jotzen ditu aldeek adostutako irizpideak –hala gertatu da aztertu ditugun kasuetan–, ondasunek duten benetako balioari gehien egokitzen zaizkion irizpideak direlakoan.

Aurreko ondorioa gorabehera, guk uste dugu Sakanako autobia fase honetan lau etxebizitzetarako balio justua finkatzeko erabili duten irizpideak aldendu egiten dela Administrazioak eskuarki erabiltzen duenetik, eta inoiz ez dela gehiago erabili autobia honetako B fasean, ez eta aldi berean edo geroago egindako obren kalteordainetan ere.

Birjarpenaren irizpidea erabiltzen baldin bada Administrazioaren kontrol egokiarekin, desjabetutako etxebizitzaren benetako balioarekin pareka daiteke, antzeko zehaztasunak dituen bat jartzen

delako. Alabaina, erabat araututako irizpide behar luke izan, eta eskuarki ezartzeko modukoa.

### III.3.5. Desjabetzapen-epaimahaia eta bestelakoak

Adostasunaren bidez konpondu ez diren desjabetzapenak sartu ditugu atal honetan. 16,3 milioi jotzen dute, hau da, guztizkoaren ehuneko 1,7.

Ez da konparazioak egiteko abiapuntu egokia, eragin txikia duelako guztizkoan. Edonola ere, landa eta hiri finkei epaimahairen bitartez jarri zaizkien prezioek berretsi egiten dituzte adostasun-aktetan erabilitako batez bestekoak.

Francisco Javier Sesma Masa auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Ganbarako burua, Luis Muñoz Garde

## I. ERANSKINA. AUTOBIAKO TARTEEN DESKRIBAPENA

Autobiak osatzen du, beste errepide batzuekin batera –A15 autopista–, Iruñea-Gasteiz edukiera handiko lotura.

### A fasea

Etxarren-Arakilen hasten da autobia. Lehenbiziko 12 kilometroetan egungo errepideari jarraitzen zaio, eta bikoiztu egiten du, beraz. Hurrengo herriak zeharkatzen ditu: Ekai, Zuhatzu, Satrustegi, Hiriberri (Arakil), Ihabar, Murgindueta, Irañeta, Uharte-Arakil, Arruazu eta Lakuntza. Bi tartetan banatzen da:

#### I. tartea. Etxarren-Irañeta

Irurtzun-Etxarren zatiarekin lotzen da Ekain, eta Uharte-Arakilen bukatzen da, Irañetako goigarobidetik 800 metrora, non hurrengo tartearekin lotzen den. Hiru lotune eraikitzea aurreikusi zuten (Satrustegi, Zuhatzu-Hiriberri (Arakil), Arruazu, Ihabar-Irañeta eta bidea zeharkatzeko bi gune).

#### II. tartea. Irañeta-Lakuntza

Egungo N-240 bikoiztu egiten du. Irañetako lotunetik Lakuntzako Arakil ibairaino doa, non hurrengo tartearekin bat egiten duen. Hiru lotune zeuden aurreikusita: Uharte-Arakilen bi; bat Arruazun.

### B fasea

Ondoren, autobia bereizi egiten da, orohar, egungo errepidetik. Arbizu, Etxarri-Aranatz, Bakai-ku, Iturmendi, Urdiain eta Altsasu zeharkatu ondo-

ren, bat egiten du N-1 errepidearekin. Azken bide hori ere bitan banatzea aurreikusita dago.

### III. tartea. Lakuntza-Etxarri Aranatz

Errepide zaharretik berezia. Arakil ibaian hasten da, non Irañeta-Lakuntza destolestaketarekin bat egiten duen. Egungo errepidetik bereizi egiten da, hegoalderantz, eta bat egin ere gero, bukaeran, Etxarri-Aranatz eta gero.

### IV. tartea. Etxarri Aranatz-Altsasu

Etxarri Aranatztik abiatu eta egungo errepidea bikoiztu egiten du Iturmendiraino. Iparralderantz aldentzen da gero. Urdiain igaro ondoren zeharkatu egiten du, eta Altsasun bukatzen da, non bitan banatzeko asmotan diren errepide nazionalarekin bat egiten duen.

• Horiek dira txostenean aztertu diren lau tartetak.

Obra hurrengo jarduketekin jarraituko da:

1.- Altsasuko lotura gunea-Altsasu errepide nazionalarekin lotzeko gunea.

Prontec-en 1991ko proiektuaren arabera. Agromani esleitu zitzaion irailaren 18ko 2614/95 Foru Aginduaren bidez, 2.424 milioitan. 1997ko azaroan hartu zuten.

2.- Olaztiko saihesbidea-Arabako muga bitan banatzea.

1996an onetsi zen proiektua behin betikoz. 2.418 milioi pezetako aurrekontua izan zuen. Eraikitzen dihardute egun.

3.- Etxegarateko mendatea-Gipuzkoako muga bitan banatzea.

1997an proiektua egiten ari dira.

## II. ERANSKINA. SAKANAKO AUTOBIAKO DESJABETZAPENAREN KRONOLOGIA

### 1989ko otsailaren 28an. 1/89 Foru Legea.

Azpiegituretako inbertsioen plan orokorra onetsi zuen, Irurtzun-Altsasu destolestaketa eta I errepide nazionala bitan banatzea sartuz. Beraz, onura publikoko derrigorrezko deklarazioa egingizat jotzen da, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Lege indarrekoaren 10. artikuluaekin bat.

**1989ko maiatzaren 10ean. Nafarroako Hiri-gintza eta Ingurugiroko Batzordeari aurreko kontsultak egiteko izapidea.**

**1989ko abuztuaren 3an. Nafarroako Gobernuaren erabakia.**

1go. Irurtzun-Altsasu autobia udalez gaindiko eragineko proiektu sektorialtzat jo zuten.

2gn. Proiektu hori behin-behinean onetsi zen eta hilabetez jendaurrean jarri zuten, Lurraldearen Antolamenduari buruzko azaroaren 11ko 12/86 Foru Legeko 26 b) artikuluaekin bat.

3gn. Era berean, Irurtzun-Altsasu autobia ingurugiro eraginaren azterketa ere hilabetez erakutsi zuten jendaurrean.

4gn. Autobia egiteak erakarri zuen desjabetzapenak ukituriko ondasunak hartzea premiazkatat jo zuen, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legeko 52. artikuluaekin bat eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 12/86 Foru Legeko 26. artikulua ere legeko babesarekin.

**1990eko apirilaren 20an. Nafarroako Gobernuaren erabakia.**

Irurtzun-Altsasu autobia udalez gaindiko eragineko proiektu sektorialaren aldaketa batzuk jarri ziren jendaurrean, erabakia NAO n argitaratu eta hilabetez epean. Aipatu erabakiaren alde dispositiboan esaten da aldaketak zeintzuk diren.

**1990eko uztailaren 31n. Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiroko Batzordearen erabakia,** Irurtzun-Altsasu autobia ingurugiro-eraginaren adierazpenaren ingurukoa (CR-19).

**1990eko uztailaren 31n. Nafarroako Gobernuaren erabakia.**

1go. Aurkeztutako alegazioak ebatzi ziren.

2gn. Irurtzun-Altsasu autobia udalez gaindiko eragineko proiektu sektorial gisa onetsi zuen behin betiko. Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiroko Batzordeak onetsi eta ingurugiro eraginaren adierazpenean sartu zituen berezitasun eta neurri zuzentzaile guztiak bete egin beharko ziren erakuntza-proiektua burutzerakoan zein obrak egiterakoan.

3gn. Proiektua behin betikoz onetsitza eta onura eta interes publikotzat jo zuten, Lurraldearen Antolamenduari buruzko azaroaren 11ko 12/86 Foru Legeko 26 d) artikulua 2. eta 3. lerroaldetik xedaturikoaren ondorioetarako.

Hartara, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen eskakizunak beteta zeuden, objektua atxiki behar zaion helburuaren onura publikoa edo gizarte-interesa aurretik deklaratzeko galdatzen baitu, desjabetzapenaren ezinbesteko betebeharrak den ezker.

**1989ko irailaren 4an. 860/89 F. A.**

Irurtzun-Altsasu autobia proiektuak (I-II-III-IV tarteak) ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jarri zuten jendaurrean, 20 laneguneko epean. Plano partzelarioak interesatuen esku daudela dio, Departamentuan, helbidea aipatuz, eta hainbat udal eta kontzejutan.

**1990eko urriaren 1ean. 1090 F.A. (CR-22)**

1go. Irailaren 4ko 860/89 F.A.k xedaturiko jendaurreko informazio fasea ebatzi eta ukitutako ondasun eta eskubideen okupatu aitzineko aktak jasotzeko edo/eta Irurtzun/Altsasu autobia I. eta II. tarteuneak: (Etxarren-Irañeta eta Irañeta-Lakuntza) proiektuaren desjabetzapen prozesuaren datak finkatu zituen.

2gn. Irailaren 4ko 860/89 F.A.k xedatu zuen jendaurreko informazio-aldia ebatzea agindu zuen.

3gn. Ukitutako ondasun eta eskubideen titularreri dei egin zuten okupatu aitzineko aktak jasotzeko.

**1992ko otsailaren 3an. 36/92 F.A. (CR-37)**

1go. Altsasuko saihebidetza bitan banatzeko eta Sakanako autobia lotunea eraikitzeko proiektua teknikoki onetsi zuen (kontrata bidez egiteko aurrekontua: 2.948 milioi).

2gn. Aipatu proiektuak ukitzen dituen ondasun eta eskubideen desjabetzapen-prozedura hastea.

3gn. Aipatu proiektua eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri zuen 20 laneguneko epean.

**1992ko irailaren 22an. 841/92 F.A.** Hiriberriko (Arakil) adarraren proiektua onetsi eta jendaurrean jarri zuen.

**1992ko irailaren 29ko 870/92 F.A.** (CD-30), urriaren 26ko 129 zk.ko NAO n argitaratua.

Irañeta-Lakuntza II. tarteko Uharte Arakilgo lotunea proiektu eraberrituak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jarri zuen, 20 laneguneko epean.

**1992ko urriaren 13an. 948/92 F.A.** (1992-11-9ko 135 zk.ko NAO). Apirilaren 8ko 236/92 F.A.k xedaturiko jendaurreko informazio aldia ebatzi eta hauxe onetsi zuen: Irurtzun-Altsasu autobia proiektu eraberritua, III. eta IV. tarteak, Lakuntza-Etxarri Aranatz eta Etxarri Aranatz-Altsasu.

**1992ko abenduaren 18an. 1282/92 F.A.** (I. tartearen aldaketa). Hiriberriko adarraren proiektua. Jendaurreko informazio aldia ebatzi eta proiektua behin betikoz onetsi zuen.

**1994ko irailaren 5ean. 936/94 F.A.** (IV. tar-tea) (CR-34).

Autobiako obren lan osagarriak onetsi zituen, IV. tartearen, Etxarri Aranatz-Altsasu, alegia, eta jendaurrean jarri zituen ukitutako ondasun eta

eskubideen zerrenda. Lan osagarriak ere zehazten dira.

**1994ko azaroaren 21ean. 1618/94 F.A.** 936/94 F.A. erabakitako jendaurreko informazio aldia ebatzi zuen.

## **“Espedienteen kudeaketa tributu arloko txosten eta ebazpen Organoan” gaiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako “Espedienteen kudeaketa tributu arloko txosten eta ebazpen Organoan” gaiari buruzko fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **“Espedienteen kudeaketa tributu arloko txosten eta ebazpen Organoan” gaiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (22. or.).
- II. Helburua (22. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (23. or.).
- IV. Ondorioak (23. or.).
- V. Gomendioak (25. or.).

**Eranskina:** Ekonomi eta Ogasun Departamentuak aurkezturiko alegazioak (26. or.).

#### **I. SARRERA**

Tributu arloko Txosten eta Ebazpen Organoa Nafarroako Foru Diputazioaren 1981eko ekainaren 19ko erabakiaz sortu zen tributuen arloan planteatzen diren errekurtsioak bideratzeko eta erabakitzeko eskumena betetzeko. Eskumen hori utziezina eta zabalezina da, eta ezin da aldatu ere interesatuek hala erabakitzen dutelako, hala eskatzen dutelako edo beste edozeinen eskumenean jartzen direlako.

Gaur egun, organoa Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren Idazkaritza Teknikoaren atal

bat da. Haren lehendakaria Ogasun Zuzendari Nagusia da eta honela osaturik dago: idazkari bat, lau organokide –atalburuen maila dutenak– eta lau pertsona administrari lanak egiteko. Organoaren ebazpenak ez dira argitara ematen.

Organokideak dira ebazpen-ponentziak egin behar dituztenak. Ebazpenak gehiengoaren erabakiz hartzen dira, organokide guztien botoak zenbatu ondoren, eta Nafarroako Gobernuak berretsi ondoren betetzen dira.

Idazkaria da Organoaren kudeaketa administrazioaren arduraduna: jakinarazpenak, aktak, sarreraren eta irteeren erregistroa eta abar. Halaber, bere eginkizunen artean Nafarroako Gobernuari administrazioarekiko auzibide-errekurtsoen eta epaien berri ematea dago.

Araubide erkidean, erregioetako (autonomiatako) auzitegi ekonomiko-administratiboak eta auzitegi zentralak lehenbiziko eta bigarren ekinaldian epaitzen dituzte tributu arloan administrazio-ekin-tzen aurka jarritako erreklamazioak. Nafarroak badu erregio mailako bere auzitegi ekonomiko-administratiboa.

Nafarroak berezko eskumen historikoak dauka arlo fiskalean eta toki administrazioaren arloan. Arlo horietan jartzen diren erreklamazioak erabakitzeko bi entitate sortu dira, Tributu arloko Txosten eta Ebazpen Organoa eta Nafarroako Administrazio Auzitegia, tributu arloan eta toki administrazioan, hurrenez hurren, jarritako erreklamazioak bideratzen dituztenak. Auzitegi ekonomiko-administratiboan eta Ebazpen Organoaren ebazpenen aurka administrazioarekiko auzibide-errekurtsoa jartzen ahal da.

#### **II. HELBURUA.**

Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearen indarrez, 1998ko fiskalizazio programari jarraituz, Tributu arloko Txosten eta Ebazpen Organoa fiskalizatu dugu.

Erakunde horri aplikatzen zaion araubide juridikoa, funtsean, 1981eko ekainaren 19ko sorrera-erabakian bilduta dago; arlo fiskaleko araudia ere aplikatzen ahal da.

Txosten honen bidez, betiere hartutako erabakien eduki juridiko-fiskala baloratu gabe, erakunde horrek egindako kudeaketa aztertu nahi izan dugu eta zehazki ondoko lanak burutu ditugu:

1. Organoaren funtzionamendua deskribatu eta aztertzea.
2. Haren kudeaketari buruzko datu aipagarriak eskuratu eta egiaztatzea:
  - Jasotako espedienteak.
  - Erabakitako espedienteak.
  - Espedienteen saldoa.
  - Urteen, gaien eta abarren arabera osaketa.
  - Preskripziorik izan ote den aztertzea.
  - Aurkeztutako errekursoetatik zenbat oniritzi diren aztertzea.
3. Foru Ogasunari errekursoen ebazpenek sor diezazkioketen arazo ekonomikoak baloratzea.
4. Organoaren kudeaketa hobetzeko gure lanetik ondoriozta daitezkeen gomendioak ematea.

### III. NORAINOKOA ETA MUGAK.

Lan hau burutzeko, abiapuntu hartu dugu Organoari aurkeztu zaizkion errekursoen egoera erregistratzen duen datu baseko informazioa.

1997an, abian jarri zen datu base informatizatu berri bat une hartan erabakitzeko zeuden errekurso guztiekin. Datu base horretan ez dira sartu Organoa sortu zenetik jarritako errekurso guztiak; beraz, dauden datuak partzialak dira.

Lana osatzeko, egoeraren arabera behar diren espedienteen laginketak egin dira, eta elkarrizketak egin zaizkio Ebazpen Organoko langileei.

Lanean eragina izan du berriki egin den eta osatu gabe dagoen datu basearen eguneratzea; hain zuzen ere, lana egiten ari ginen unean aipatu datu basean informazioa sartzera egindako zenbait akats zuzentzen ari ziren, eta horrek informazioaren azterketa sistematikoa oztopatu du.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Instituzionalen Koordinazio Batzordeak (KKO) onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauei jarraituz eta egoeraren arabera beharrezko jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin dugu lana.

Lana auditore batek eta auditoretzako teknikari batek osaturiko taldeak burutu du martxo eta apirilean.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Tributu arloko Txosten eta Ebazpen Organoko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

### IV. ONDORIOAK.

1.- Ez dago eredu normalizaturik Organo honi errekursoak aurkezteko. Errekurtsoak Nafarroako Erregistro Orokorreko eredu orokorraren arabera aurkezten dira. Hori dela eta, eduki mota askotako errekursoak aurkezten dira eta, oro har, denak onartzen dira, salbu gai ez den pertsona batek aurkeztutakoak badira edo epez kanpo aurkezten badira. Esan daiteke horretara zergapekoaren eskubidearen alde jarduten dela.

2.- Azken urteetan atzerapen handia sortu da espedienteak erabakitzeko orduan. Araudiaren arabera, errekursoak erabakitzeko epea urtebete eta sei hilabetekoa da, baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoak badira.

Lan honetarako datuak hartzeko garaian, 1998ko martxoan, hona erabakitzeko zeuden espedienteen kopuruak:

Aurkeztu diren urtea	Zenbat espediente
1991	5
1992	13
1993	6
1994	213
1995	993
1996	777
1997	907
1998	150
<b>Guztira</b>	<b>3.064</b>

Atzerapen hori aintzat hartuta, 1996an bi organokide izatetik lau organokide izatera pasa zen Organoa. Hala ere, esan daiteke 1997ko azken hiruhilekotik aurrera daudela lau organokide espedienteak ebazten. Une horretara arte datu base berria sortzen aritu ziren eta Organoa beste egoitza batera aldatzeko lanak izan ziren. Beste aldetik, kontuan hartu behar da lanaren espezializazioa aintzat hartuta, gutxieneko epe bat behar dela lanpostura egokitzeko.

Aurkeztutako errekurso gehienak errentari buruzko zergari dagozkio, 1.742. Ondotik sozietateen gaineko zergari buruzko espedienteak dira, 347 espediente.

**3.-** Metaturiko atzerapenak berekin dakar errekurtsioak ebazteko epea luzeegia izatea.

892 espedienteri buruz egindako laginketa baten arabera, ikus daiteke espedienteak erregistro orokorrean sartzen direnetik bilkura batean aztertzen diren 701 eguneko epea dagoela, eta 42 eguneko Organoren bilkuratik Gobernuaren berresten duenera.

Epe horiei erantsi behar zaie Gobernuak berresten duenetik interesatuari ebazpena jakinarazten zaionera arteko epea, 45 egun ingurukoa.

Horrek esan nahi du errekurtsioak aurkezten direnetik ebazten diren arteko epea 788 eguneko delako, hau da, bi urte baino gehiagokoa.

Hala eta guztiz ere, batez besteko epe horiek gorabehera handiak dituzte. 1996ko martxoko Organoren bilkurako espedienteak Gobernuaren sei bilkuratan berretsi ziren, eta abuztuaren jakinarazi ziren, ebazpena eman eta 129 egunera.

Epe horien arrazoiak ondokoak dira:

- Espedientean ebazteko metatu den atzerapena.

- Ez dago beti argi nori aurkezten zaion errekurtsioa; beraz, errekurtsioa askotan dagokion atalera bideratzen da eta gero atal horrek Organora bidaltzen du.

- Errekurtsioa "Ondare Eskualdaketak" atalari baldin badagokio, espedientearen kopia eta guzti bidaltzen da; hori dela eta egun batzuetako atzerapena dago, nahiz eta horrek gero espedienteak ebaztea errazten duen.

- Gobernuak 75 espediente inguru berresten ditu bilkura bakoitzean; beraz, kopuru hori baino gehiago ebazten badira, hainbat bilkura gehiago beharko dira haiei berrespentza emateko.

- Organoren bilkura bateko espedienteak –ez Gobernu bilkura bateko guztiak– batera jakinarazteko ahaleginak egiten dira.

**4.-** Epe horren luzeak izateak berekin ekarri du berriki zenbait espediente preskribatu izana. Preskripzioa gertatzen da errekurtsioa aurkeztu zenetik 5 urte igaro badira Administrazioak jardun gabe.

Zehazki, 1992 urtean aurkezturiko 10 errekurtsio preskribatu dira, guztira 32 milioi pezeta egiten dutenak.

**5.-** Ebazteko ardura duten organokideen artean banatzen dira errekurtsioak, funtsean antzintasuraren irizpidea erabiliz.

**6.-** Errekurtsioak oniritzen ez badira, administrazioak tributu zorraren mugaegunetik errekurtsioa ebatzi arteko aldiari dagozkion korrituak eskatzen ditu.

**7.-** Datu basean ez da erregistratzen errekurrituriko zenbatekoa; hori dela eta, ezin dira ezagutu Foru Ogasunari Organoren aurrean aurkezturiko errekurtsioek ekartzen dizkion gorabehera ekonomikoak. Esan beharra dago errekurtsio horietako askotan datu hori ez dela zehazten eta are gehiago errekurtsio oso orokor asko ere onartzen direla; kasu horietan, lan handia da errekurtsioa ezagutzea espedienteak aztertu gabe.

Hala eta guztiz ere, zor asko abaldunak direnez, dirubilketa atalari eskatu diogu abal horiek egiten duten zenbatekoa emateko eta datu hori abiapuntu hartuta gainerako zorren zenbatespen bat egin dugu. Gutxi gorabehera esan dezakegu arriskua 5.000 milioi pezeta ingurukoa dela. Horietatik 2.000 milioi Ogasunean mantendu diren abalei dagozkie, izan ere Administrazioarekiko auzibideen Auzitegian errekurtsioa aurkeztu delako.

Zenbateko hori behar bezala baloratzeko, orotariko tributu-dirubilketarekin lotu behar da, 1997ko aurrekontuetan 237.000 milioi pezetakoa izan dena, eta oniritzen diren errekurtsioen prozentaiarekin.

**8.-** Datu basearen egoerak zail egiten du oniritzen eta gaitziritzen diren errekurtsioen portzentaia baloratzeko. Hala eta guztiz ere, laginketa bat egin dugu 1997 urtean erabaki eta datu basean hartutako irtenbidea eta guzti sartutakoei buruz. Hona lortutako emaitza:

	Kopurua	%
Oniritzitakoak	79	28
Zati batez oniritzitakoak	44	16
Gaitziritzitakoak	143	51
Baztertuak	16	5
Guztira	282	100

Hau da, erabakien ehuneko 28 zergapekoaren aldekoak dira eta ehuneko 16 zati batean haren aldekoak.

**9.-** Laginketa bat egin dugu ezagutzeko zer gertatzen den Organoren hartu eta Administrazioarekiko auzibideen Auzitegian errekurritzen diren ebazpenekin.

Epaia eman zen 269 kasu abiapuntu hartuta, hona emaitzak:



	%
Gaitziritzitakoak edo baztertutakoak	71
Oniritzitakoak	21
Zati batean oniritzitakoak	8
Guztira	100

Hau da, kasuen ehuneko 71n arrazoia ematen zaio Ebazpen organoari.

**10.-** Lan administratiboak, funtsean, ondokoe-tan dautza:

- Errekurtsoak jaso eta datu basean sartzea.
- Behar den dokumentazioa eskatzea kasuan kasuko atalei eta erreklamazioa egin duenari.
- Ebazpenak prestatzea.
- Bilkuretako gai zerrendak prestatzea eta txostenak banatzea organokideen artean, bilkurak burutu aurretik.
- Dokumentazioa prestatzea Gobernuak ebazpena berrets dezan.
- Interesatuei jakinaraztea.
- Administrazioarekiko auzibideen auzitegian errekurrituz gero, eskatzen den dokumentazioa bidaltzea.

Lan administratibo horiek guztiak, gure ustez, gehiegi atalkatuta daude administrarien artean. Hori dela eta, langileren batek lanera huts eginez gero, zaila da behar diren lanak burutzea.

Hala eta guztiz ere, sakondu beharra dago Organoaren kudeaketa administratiboaren eta Ogasun Departamentuko kudeaketaren arteko koordinazioa hobetzeko, batez ere dirubilketari dagokionez. Arlo horretan, atal horrek ez ditu automatikoki ezagutzen errekurtsoarekin batera Organoaren aurrean aurkezten diren abalak, nahiz eta programa informatikoen horretarako bidea ematen duten; beste aldetik, hartutako ebazpenei buruz unitate ezberdinek jaso behar duten informazioa sistematizatu gabe dago.

1998ra arte, Organoaren bilkurek ez zuten maiztasun jakinik, eta ez ziren urtean hiruzpalau bilkura baino gehiago egiten. Gaur egun, aurreikusita dago hilabete eta erdian behin bilkura bat egitea.

**11.-** Ebazpenak argitaratzen ez direnez eta ebazpenen compendiumik egiten ez denez, zergapekoak ez ditu ebazpen horiek ezagutzen eta ez dago modurik kudeaketa-bulegoek edo, are gehiago, Organoak berak informazio sistematiza-

tua erabiltzeko. Hori dela eta, unitate bakoitzak bere sistemak ditu informazio hori erabiltzeko.

**12.-** Atzerapen nabarmena dago errekurtsoak ebazteko garaian, hain zuzen ere une honetan 1994 urteko azkenak bukatzen ari dira. Horrek, azken urteetan zerga arloko legedian izandako aldaketekin batera, zaildu egiten du errekurtsoen ebaztea eta oztopoa da ebazpen horiek aintzat hartzeko tributu kudeatzaileek erabiltzen dituzten irizpideetan. Zerga arloko legedian aldaketa gutxiago egonen balitz, errazagoa izanen litzateke Organoak ebazpenak ematea eta baita ere zergapekoek ebazpen horiek ezagutzea eta, azken finean, zerga arloko betebeharrak hobeki betezea.

## V. GOMENDIOAK.

Hona hemen gomendio batzuk egindako lanaren ondorioz eta zergapekoari eta administrazioaren beraren unitate ezberdinei kudeaketa errazteko, planteatutako errekurtsoek tributu arloko administrazioarentzat izan ditzaketen ondorioak ezagutzeko eta errekurtsoen ebazpenen atzerapena zerbait kroniko eta ohiko bihurtzea –eta praktikan Organoaren beraren eginkizuna desitxuratzeari– saihesteko:

- *Datu basea eguneratu eta osatzea bai eta sartutako datuak garbitzea ere, izan ere datu basea Organoaren kudeaketa erraztuko duen tresna bat izan dadin.*

- *Organoaren kudeaketa administratiboaren eta Ogasun Departamentuaren kudeaketa orokorraren arteko koordinazioa osatzea, errekurritutako aitorten edo jarduketan egoerari dagokionean, hain zuzen ere zordunen egoera uneoro ezagutu ahal izan dadin.*

- *Baloratzea komenigarria ote den errekurtso eredu bat ezartzea informazioa Organoaren datu basean, eta aurreko puntuan adierazitakoaren arabera beharrezko diren gainerako datu base orokorretan, sartzea erraztuko duena.*

- *Organoaren bilkuren maiztasuna finkatzea eta hilabetean behin bilkura bat edukitzea.*

- *Errekurtsoen kudeaketarako behar diren epeak murriztea, Gobernuak berresteko izapidea kenduz. Izapide horrek, legeak agindutakoa, ebazpenak geroratzea ekartzen du berekin eta, praktikan, bulegoko lana sortzen du, izan ere Organoaren ebazpenak ez direlako sekula aldatzen. Horrelako aldaketaren bat egiteko beharrezkoa da indarreko legedia aldatzea.*

- *Aztertzea komenigarria ote den Organoa independenteagoa izatea formazko alderdietan.*

*Bide horretan, aztertu beharko litzateke lehendakaria Ogasun zuzendaria izan behar izatea eta Gobernuak haren ebazpenak berretsi behar izatea komeni ote diren. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da aztertutako datuetatik ondoriozta daithekeela Organoaren ebazpenak autonomia funtzionalarekin ematen direla.*

*Hori dela eta, adierazi beharrekoa da aukera bat izan litzatekeela Estatuko auzitegi ekonomiko-administratiboen antzeko auzitegi bat sortzea, Tributu arloko Ebazpen Organoaren eta Nafarroako Administrazio Auzitegiaren eginkizunak batera hartuko lituzkeena.*

- *Kontrola areagotzea, errekurtsioak epean ez ebazteagatiko edo epean ez komunikatzeagatiko preskripzioak saihesteko.*

- *Lan administratiboan dagoen gehiegizko atalkatzea gutxiagotzea, botila lepoak sortzen ahal dituztelako lan administratiboetan aritzen direnek lanera huts eginez gero.*

- *Argitaratzea, gutxienez, interes orokorreko ebazpenak. Argitaratze hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean egin daiteke ebazpenak aldizka argitara emanez, edo informazioaren gaurko teknologiak erabiliz, edo bi sistema horietaz batera baliatuz.*

- *Zalantzarik ez dago baliabideak epe egoki batean ebazteko beharrezkoa dela errekurtsioak organokideen artean partitzea. Antzinasunaren irizpidea abiapuntu hartu bai baina beste irizpide batzuk erabili behar dira, esate baterako antzeko kasurik aztertu ote den, hain zuzen ere ebazpena azkarrago emateko modua edukitzeko. Organoaren arduradunek adierazi diguten bezala, 1998tik irizpide hori aintzat hartzen ari da errekurtsioak organokideei esleitzeko garaian.*

- *Errekurtsioak gaitziritzen badira, korrituak ordaintzeko epea ez da urtebete baino luzeago izanen, eta epe horretan errekurtsioak ebatzi beharko dira. Zenbait errekurtsio ebazteko sei urte inguru behar badira, orain gertatzen ari den bezala, korrituak eskatzen ari zaizkio zorpekoari Administrazioaren erru den atzerapenarengatik.*

- *Aztertzea noraino posible den Organoari helitzen zaizkion kasuen kopurua murriztea, Departamentuko unitate organiko ezberdinen kudeaketa hobetzeko, esate baterako, funtzionario guztiei jakinaraziz zein irizpide jarraitu behar dituzten.*

- *Neurri horiek guztiek berekin ekarri behar dute errekurtsioak ebazteko epea urtebete baino gutxiagokoa izatea, ez araudiak hori ezartzen duelako, baizik eta zergapekoak itxaron beharre-*

*ko aldia ez delako luzeagoa izan behar Organoaren kudeaketa eraginkorra izanen bada.*

**Ondorio** edo amaierako laburpen gisa, ondokoak agertu nahi ditugu:

Tributu arloko errekurtsioen ebazpena Foru Komunitatean Tributu arloko Txosten eta Ebazpen Organoaren esku dago; haren ebazpenen aurka administrazioarekiko auzibide-errekurtsioa jartzen ahal da.

Atzerapen handia dago ebazpen horiek emateko garaian eta hori kaltegarria da ez bakarrik herritarrentzat, baita tributu-administrazioarentzat berarentzat ere. Sakondu beharra dago Organoaren kudeaketa administratiboa Ogasun Departamentuko kudeaketa orokorrekin koordinatzeko lanetan. Aurrekoak eta datu base berria oraindik erabat ezarri gabe egoteak zaildu egiten dute Organoaren jarduerari buruzko alderdi batzuk baloratzea, esate baterako, arazo ekonomikoen balizko zenbatekoak, ebazpen motak eta abar.

Planteatutako gomendioek ahal den independentzia handiena eman nahi diote Organoari, zordunen errekurtsioek ahal den eta azkarren erabaki daitezten.

Txosten hau Jesús Muruzábal Lerga auditoreak eskatuta eman da, bera baita lan hau burutzeko erantzukizuna izan duena, behin indarreko legediak aurreikusiriko izapideak bete eta gero.

Iruñean, 1998ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

### **ERANSKINA. TRIBUTU ARLOKO TXOSTEN ETA EBAZPEN ORGANOARI BURUZKO BEHIN BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK.**

Joan den maiatzaren 28an Tributu arloko Txosten eta Ebazpen Organoari buruzko behin behineko fiskalizazio txostena bidali ziguten, egoki ziren alegazioak egin ahal izateko. Behin behineko txosten hori aztertutik, hona gure alegazioak:

*III. atala. Norainokoa eta Mugak.*

Atal honetan lerroalde hau ageri da:

“Lanean eragina izan du berriki egin den eta osatu gabe dagoen datu basearen eguneratzea; hain zuzen ere, lana egiten ari ginen unean aipatu datu basean informazioa sartzera egindako zenbait akats zuzentzen ari ziren, eta horrek informazioaren azterketa sistematikoa oztopatu du.”

Adierazi beharrean gaude Kontuen Ganbarako taldekideei beren lana burutzeko eskatu zuten informazio guztia eman diegula. Argi dago infor-

mazioa datu base batean sistematizatuta egoteak, lerroalde horretan aipatzen den bezala, fiskalizazio lana erraztuko lukeela, eta era berean zati batean mekanizaturiko informazioarekin lan egiteak lana zailtzen duela. Hori dela eta, uste dugu ez dela nahastu behar zailtasuna eta oinarritzko informazioaren eza.

• IV. atala. Ondorioak <sup>(1)</sup>

(7) "Foru Ogasunari Organoaren aurrean aurkezturiko errekurtsioek ekartzen dizkion gorabehera ekonomikoak" zenbatesteko helburuari dagokionez, alderdi horrek ez du berririk ekartzen Organoaren kudeaketaren ikuspuntutik eta daukan eginkizuna (espedienteak ebaztea) betetzearen ikuspuntutik; hori dela eta, ez da datu hori datu basean sartzen.

Azpimarratu behar dugu informazioa eskura dagoela kalkulu hori edo beste edozein kalkulu egiteko; hala ere, aurretik azaldu dugun bezala, lan handia da datu base baten laguntzarik gabe jardutea.

Puntu horretan bertan, "arriskua" aipatzen da eta 5.000 milioi pezetaren inguruan zenbatesten da. Kontzeptu horrek erabakitzeke dauden errekurtsio guztiak zorpekoen alde oniritziz gero ordaindu beharko litzatekeen dirua bildu nahi badu, gure ustez balorazio hori Organoko espedienteen kudeaketaren testuinguruaz kanpo egin behar da; izan ere aurrekontuen mailako arazoa izan daitekeenez Nafarroako Gobernuarentzat Gobernuaren kontu orokorren auditoretzaren arloan ebaluatu eta ondorioztatu behar da. Lagungarri gisa, aintzat hartuz errekurtsioek dirusarreraren

aurrekontuan eta oniritzitakoen aldean zein ehuneko txikia egiten duten, kopuru hori ez da inolaz ere esanahi handiko arriskua Foru Ogasunarentzat.

(10) Dirubilketa Zerbitzuari buruz txostenak aipatzen duen datua da zorpekoek Organoari aurkezturiko abaletatik % 2,5i buruzko informazioa, gutxi gorabehera, ezin dela automatikoki eskuratu Dirubilketa Zerbitzuan.

Alderdi horiek amaierako laburpenean iruzkitzen dira berriz ere, baina ez ditugu berriz ere aipatuko.

Alegazio horien ondorio gisa, azpimarratzekoa da unitate organiko horren garrantzia eta Foru Komunitateko tributu arloan duen eragina ikusirik, beharrezkoa dela aipatzea zein neurri hartu diren egoera zuzentzeko. Bide horretan, 1998ko lan plangintzak 8 bilkura aurreikusten ditu (hau da, bilkurak hilabetearen behin egiten dira) eta 1.500 espediente ebaztea jarri da helburu (aurreikusten diren sarreraren % 50 gehiago), eta hori guztia erabakitzeke dauden errekurtsioei buruzko datu basean sarturiko informazioa kudeatuz, eta errekurtsio horiek modu eraginkorrean esleituz, aintzat hartuta espedienteak multzo homogeneousan sailkatu daitezkeela errekurritutako gaiaren arabera. Hala ere, eta ebazpenak berresteko epeei gagozkiela, une hauetan Organoaren bilkura bakoitzetik Gobernuko bi bilkuratara bitartekoa da, hau da 7 eguneko.

Iruñean, 1998ko ekainaren 12an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José M<sup>a</sup> Aracama Yoldi

(1) Parentesi artean ageri den zenbakia behin behineko txosteneko ondorioari dagokio.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--